

Terminologia-lanaren metodologiako eskuliburua

2002-09-30

AURKIBIDEA

SARRERA	3
1. PROIEKTUA DEFINITZEA ETA ZEHAZTEA.....	4
2. TERMINOLOGIA-LANA PRESTATZEA	6
2.1. Bibliografia aukeratzea eta corpora zehaztea	6
2.1.1. Bibliografiaren garrantzia eta corpus-motak.....	6
2.1.2. Dokumentu-kodetzea.....	7
2.2. Aholkulariak aukeratzea eta aditu-taldea eratzea.....	7
2.3. Kontzeptu-sistema eraikitzea	8
2.3.1. Eremua egituratzea eta kontzeptuak mugatzea	8
2.3.2. Eremu-zuhaitza eta fitxa terminologikoen sailkapena	9
2.4. Fitxa terminologikoen informazioaren egituraketa	10
2.5. Terminologiako datu-baseak kudeatzeko sistemak.....	10
3. TERMINOLOGIA-LANA EGITEA.....	12
3.1. Oinarrizko nomenklatura finkatzea.....	12
3.2. Hustuketa terminologikoa.....	13
3.2.1. Terminoak lokalizatzea eta zedarritzea.....	13
3.2.2. Lematizazioa.....	14
3.3. Fitxa terminologikoak lantzea.....	15
3.3.1. Euskarazko fitxa terminologikoen datuak.....	15
3.3.2. Fitxa terminologikoaren datuak, banan-banan.....	17
A) Kontzeptuaren sailkapena.....	17
B) Termino-sarrera	18
C) Termino-tipoa	19
D) Informazio gramatikala	21
E) Erabilera geografikoa.....	22
F) Testuingurua	23
G) Oharrak.....	23
H) Ponderazio-marka.....	23
I) Definizioa	24
J) Baliokidetzak: beste hizkuntzak	27
3.3.3. Terminologia-trukea MARTIF formatuaren bidez	28
3.4. Adituekin harremanak. Normalizazioa	29
3.4.1. Adituekin harremanak.....	29
3.4.2. Terminologia-lanen normalizazioa	30
4. TERMINO-SORKUNTZA EDO NEOLOGIA.....	31
4.1. Neologia: definizioa eta tipologia.....	31
4.1.1. Formazko neologismoak.....	31
4.1.2. Esanahizko neologismoak.....	32
4.1.3. Maileguzko neologismoak.....	32
4.2. Neologismoak onartzeko eta aukeratzeko irizpideak.....	33
5. TERMINOLOGIA-LANAREN ARGITALPENEA	34
5.1. Argitalpen-motak	34
5.2. Paperezko euskarria	34
5.2.1. Atarikoak	35
5.2.2. Lehen atala: artikulua.....	35
A) Artikuluaren egitura	35
B) Artikuluak ordenatzeko moduak.....	36
5.2.3. Bigarren atala: aurkibideak.....	38
A) Erdara-euskara lexikoak	38
B) Hizkuntzen indizeak	38
6. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK	40

SARRERA

*Terminologia-lanaren metodologiako eskuliburu*a izeneko liburu honetan, terminologiako lan bat egitean kontuan har daitezkeen jardute-urratsak eta gomendio praktikoak azaltzen dira.

Eremu edo azpieremu jakineko terminologiaren azterketa sistematikoa egiten laguntzeko asmoarekin egin dugu eskuliburu hau. Hortaz, arloko terminologia lantzeko metodo bat azaltzen da, ez terminologia puntuala jorratzeko metodologia. Arloko terminologiaren xedea eremu tekniko edo zientifiko bateko terminologia ezartzea izaten da.

Eskuliburu hau prestatzeko orduan, kanpokoen eta bertokoen jakintzan eta esperientzian oinarritu gara. Batetik, Kanadako Gobernuaren eta Quebec-eko Office de la Langue Française-ren ekarpen garrantzitsuak erabili dira, askotan Kataluniatik zehar iritsi zaizkigunak. Era berean, Kataluniako terminologoez berek, eta, bereziki, Termcat-ek jorratutako lanak ere kontuan hartu dira. Oinarri hartu dira, halaber, nazioartean arlo honetarako ezarrita dauden estandarrak, ISOren (Nazioarteko Estandarizazio Erakundearen) arauak eta gomendioak, alegia. Bestetik, azken urteotan Euskal Herrian terminologiaren inguruan landutakoa ere aintzakotzat izan da. Eta, azkenik, geure esperientziaz, UZEIren 25 urteko lanak emandako eskarmentuaz, baliatu gara.

Edonola ere, euskararen inguruan egindako terminologia-lanerako prestatu nahi izan da eskuliburu, urrunagoko asmorik gabe. Euskarazko terminologia-lan bat egiteko egin daitezkeen urratsak azaltzen dira: lehendabizi, proiektua definitzeko orduan kontuan hartzekoak diren hainbat puntu zehazten da; ondoren, terminologia-lanari berari ekin baino lehen egin beharreko zenbait aurre-lan garrantzitsuren berri ematen da, hala nola corpusa zehaztea, aholkulariak aukeratzea e a/edo aditu-taldea eratzea, kontzeptu-sistema eraikitzea eta terminologiako datu-base bat kudeatzeko sistema aukeratzea; jarraian, terminologia-lana bera egiteko modua azaltzen da urratsez urrats, hustuketatik hasi eta sortu berri den Terminologia Batzordeak berrikusten eta ontzat ematen duen arte. Hori guztia, lanaren berraren metodologiari dagokionez. Horrez gain, euskarazko terminologia lantzean balia daitezkeen neologia-bideen berri ematen da, edozein terminologia-lanetan maiz erabiltzen den baliabidea baita. Amaitzeko, terminologia-lanaren argitalpenaz jarduten da.

Horrela, bada, eskuliburu honen helburua praktikoa da: lan-tresna erabilgarri bat prestatu nahi izan da arlo honetan lan egin nahi duen edonorentzat. Hiztegitan aritu nahi duten amateur eta profesionalei gauzak gero eta txukunago egiten lagunduko dien lanabesa izan nahi du.

Terminoen normalizazioari buruz ari den atalean, Terminologia Batzordea aipatzen da. Batzorde horrek egin beharko dituen lanetarako ere baliagarria izan dadila eskuliburu hau.

U Z E I

1. PROIEKTUA DEFINITZEA ETA ZEHAZTEA

Ikerketa terminologiko sistematikoari ekiteko orduan, lehendabizi terminologia-proiektua definitzen da. Horretarako, beharrak aztertzen dira, eta, beharren arabera, puntu hauek zehazten dira:

- Ikerketa-arloa
- Helburua
- Hartzaileak
- Hizkuntzak
- Kontzeptu-kopurua
- Fitxa terminologikoaren osagaiak
- Egutegia

- *Ikerketa-arloa*: lanari ekin baino lehen, landu nahi den arloa, eremua, zehaztu behar da, ikerketa terminologikoaren aztergaia izango den kontzeptu-multzoa finkatu ahal izateko. Aukeratutako arloaren ezaugarrien arabera izango da terminologia-lana. Arloa aukeratzeko arrazoia hizkuntzaz kanpokoa izan daiteke, baina gehienetan hizkuntzaren egoera bera hartzen da kontuan, bai eta arlo ezberdinetako egoera terminologikoa ere, dauden hutsuneak eta premiak hautemateko. Egoera soziolinguistikoa ere ezagutu behar da.

Horrez gain, askotan terminologia-lanak erakunde publikoren batek (Eusko Jaurlaritzak, aldundiek, ...) edo erakunde pribaturen batek (Eroskik, aurrezki-kutxek, ...) eskatuak izaten dira, eta, horrelakoetan, bezeroak berak eskabidean zehazten du, normalean, lanaren gaia.

- *Helburua*: ikerketa-arloaz gain, argi izan behar da terminologia-lanaren helburua zein den. Helburua zehazteko, aukeratutako eremuko beharrak azter daitezke, hutsuneak non dagoen ikusteko. Garrantzitsua da helburua zehaztea; izan ere, helburuaren arabera izango da bai terminoen aukeraketa eta bai lanaren exhaustibotasuna ere.

Helburuak anitz izan daitezke, besteak beste, arlo bateko oinarritzko lexikoa osatzea, espezializazio-eremu bat goitik behera jorratzea, edo ordura arte euskaraz landutako terminoak biltzea eta antolatzea. Arloa bera izan arren, helburuaren arabera mota ezberdinetako lan terminologikoak egin daitezke.

- *Hartzaileak*: hartzaileak nortzuk izango diren zehaztu behar da; esaterako, adi-tuak, itzultzaileak, ikasleak, jendea oro har. Beharren azterketak asko lagun dezake hartzaileak zehazteko orduan, beharren azterketaren bidez jakin baitezakegu zein hartzaile-motak behar duen terminologia-lan jakina.

Hasiera-hasieratik jakin behar da terminologia-lana nori zuzenduko zaion; izan ere, hartzaileen espezializazio-mailaren arabera, landuko diren terminoak modu batekoak edo bestekoak izango dira, eta termino-kopurua eta fitxa terminologikoaren osagaiak ere (definizioak, testuinguruak, ...) hartzaileen beharren arabera izango dira. Terminoen aukera egiteko modua ere aldatu egiten da hartzaileen arabera; Nekazaritza Hiztegian, adibidez, garrantzi berezia izan zuen sinonimiak, arlo horretako termino asko euskalkietan errotuta daudelako.

- *Hizkuntzak*: terminologia-lanak hizkuntza bakarrekoak edo hizkuntza bat baino gehiagokoak izan daitezke. Hasieratik erabaki behar da, beraz, euskaraz gain, beste zein

hizkuntzako terminoak landu nahi diren. Azpimarratzekoa da, halaber, euskara normalizazio-bidean dagoenez, terminologia-lana erdara bateko oinarritzko nomenklatura edo termino-zerrendatik abiatzen dela askotan.

Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta, edozein terminologia-laneko hizkuntzak euskara, gaztelania eta frantsesa izatea da normalena. Hala ere, landu nahi den arloaren arabera ere egin daiteke hizkuntza-aukeraketa, eta, hortaz, arloaren egoera terminologikoaren berri izatea komeni da, zein hizkuntzako terminologia kontuan hartu beharko litzatekeen erabakitzeke.

Terminologia-laneko hizkuntzak finkatzeko orduan aintzakotzat izatekoa da, era berean, ea aukeratutako arloko kontzeptu-sistema lokala den (lurralde jakin bati lotua, adibidez, Foru Zuzenbidea) ala unibertsalagoa den (eremu zabalagoan hedatua, adibidez, Informatika); pentsaezina da, esaterako, Informatikari buruzko lan terminologiko batean ingeleseko terminologia ez lantzea; aitzitik, Foru Zuzenbideari buruzko kontzeptu-sistema batean ingelesak ez luke tokirik izango.

- *Kontzeptu-kopurua*: terminologia-lanetan kontzeptu-kopurua 200etik 2000ra artekoa izan dadila gomendatzen da, arloaren arabera. Arloa espezializazio handikoa denean, kontzeptu gutxi izaten dira (*Izen Geografikoen Glosarioa*), eta arloa zabala denean, berriz, kontzeptu asko lantzen dira (*Ekonomia eta Enpresa Hiztegia*). Ez da gomendatzen garai batean landu izan diren 5.000 kontzeptu edo gehiagoko hiztegi erraldoirik egitea.

- *Fitxa terminologikoaren osagaiak*: fitxa terminologikoetako informazio sistematikoa –terminoari buruzkoa, esanahiari buruzkoa, ...– zehaztu behar da. ISO 12620 arauak fitxa terminologikoetan ager daitezkeen osagaiak ezartzen ditu, eta terminologia-lanaren ezaugarrien arabera komeni direnak aukeratuko dira.

Kontzeptu-kopurua eta fitxa terminologikoko osagaiak zehazteko orduan, finkatutako helburuak eta hartzaileak eragin handia dute. Ondoko adibideetan argi ikus daiteke hori:

SOLFEOARI BURUZKO LEXIKOA:

- Hizkuntzak: euskara, gaztelania
- Hartzaileak: solfeoa ikasten duten haurrak
- Helburua: hurrei solfeoko oinarritzko nomenklatura eskaintzea
- Kontzeptu-kopurua: 200
- Informazioa: bi hizkuntzetako sarrerak eta kategoria gramatikala.

INFORMATIKA ETA INTERNET HIZTEGIA

- Hizkuntzak: euskara, gaztelania, frantsesa eta ingelesa
- Hartzaileak: informatikan diharduten adituak eta lanean informatikaz baliatzen direnak
- Helburua: interneti eta oro har Informatikari buruzko terminologia eguneratua eskaintzea, kontzeptuen sistematizazio zehatza eginez
- Kontzeptu-kopurua: 2.300
- Informazioa: lau hizkuntzetako sarrerak, sailkapena, kategoria gramatikalak, definizioak, sinonimoak.

- *Kronograma*: oso garrantzitsua da egutegia antolatzea, batez ere lana egiteko epea ezarri denean. Hasieran esan bezala, lan terminologikoak, askotan, erakunderen batek sustatuak izaten dira, eta, horrelakoetan, erakundeak berak ezartzen du, hasiera-hasieratik, lana zein epetan egin behar den. Laneko urratsen egutegia egitea komeni da, ona izaten da-eta urrats guztiak aurretik lotuta eta antolatuta izatea.

2. TERMINOLOGIA-LANA PRESTATZEA

2.1. Bibliografia aukeratzea eta corpora zehaztea

2.1.1. Bibliografiaren garrantzia eta corpus-motak

Dokumentazioa terminologia-lanaren zutabe garrantzitsua da. Batik bat dokumentu teknikoak dira terminologia-lanaren oinarria, bertan agertzen baitira adituek eguneroko jardunean erabiltzen dituzten terminoak. Terminologia-lana, berez, ez datza aurretiaz ezarritako eremu-zuhaitzeko kontzeptuak izendatzeko terminoak asmatzean, adituek errealitatean erabiltzen dituzten terminoak antzematean eta biltzean baizik. Terminologoak dokumentuetatik jaso behar ditu terminoak, bai eta terminoaren esanahia, forma eta erabilera ere, ondoren termino-proposamen egokia egiteko. Bestalde, terminologoak dokumentaziora jo beharra dauka gaia eta gaiari buruzko kontzeptu-sistema eza-gutzeko. Dokumentazioa, beraz, terminologia-laneko urrats guztietan da baliagarria eta erabili beharrekoa. Kontuan izan, terminologia-lanaren azken produktua ere, landutako terminologia bera, alegia, dokumentua dela.

Terminologia-lana prestatzen hasteko, beraz, terminoak bilatzeko eta kontzeptuak argitzeko baliagarriak izan daitezkeen euskarazko nahiz beste hizkuntzetako dokumentuen inbentarioa egin behar da. Dokumentuak elkarrekin bildu, baloratu, aukeratu, eta sistematikoki antolatu egiten dira, corpus izeneko testu-bilduma egituratua lortzeko. Corpora osatzen duten dokumentuak gehienetan testu idatziak izaten dira. Ahozko iturriak erabiltzen badira, transkribatzea komeni izaten da. Hauek dira terminologia-lana egiteko erabiltzea komeni den bibliografia-motak:

1) Lan-eremuko testu espezializatuak: lan tekniko edo zientifikoak, besteak beste, aldizkariak, eskuliburuak, katalogoak, arauak eta lan zientifikoak. Eremuko kontzeptuak egituratzeko eta horren arabera hasierako nomenklatura finkatzeko eta hustuketa egiteko oinarrizko corpora osatzen dute.

2) Lan-eremuko obra terminologikoak: besteak beste, hiztegiak eta lexikoak. Interagarriak dira, era berean, lanean erabiliko ez diren hizkuntzetan egindakoak, batez ere definizioak badituzte. Halaber, oinarrizko nomenklatura ezartzeko abiapuntu ere izaten dira maiz.

3) Laneko hizkuntzako lexikografia-lanak: mota honetako artean sartzen dira, esaterako, lexiko orokorreko hiztegiak eta itzulpen-hiztegiak.

Kontuan hartzekoa da, testu espezializatuak direla terminologia-lanerako dokumentu garrantzitsuenak, terminoen benetako testuinguru, testuinguru natural baitira. Terminoen ekoizle naturalak, berez, arlo zientifiko eta teknikoetako adituek dira, eta ez hiztegiak egiten dituzten lexikografoak eta terminologoak. Izan ere, lantokietan, ikertze-eta trebatze-zentroetan erabiltzen da terminologia modu naturalean, eta ez hiztegiak sortzen dituzten erakundeetan.

Bildutako dokumentuen artetik, bi xede hauek lortzeko dokumentuak aukeratzen dira:

- Hustuketa-corpora. Oinarrizko nomenklatura finkatzeko eta hustuketa egiteko lan egokienak aukeratzen dira, bertatik ateratzen baitira landuko diren terminoak. Ikerketa-gaia izango denez, ondo aukeratu behar da, ikerketaren emaitza baldintzatuko du eta. Hortaz, hustuketa-corporak landu nahi den eremuaren adie-

razgarri izan behar du, ahal dela eremu horretako alderdi guztiak barne hartu behar ditu, eta eguneratua izan behar du, bertatik husten diren terminoak baliagarriak izan daitezzen.

- Erreferentzia-corpora. Gaiari buruzko informazio moduan erabiliko diren lanak dira. Gaiaren inguruko zalantzak argitzeko balio dute (lan teknikoak, ...), bai eta definizioak lantzeko ere.

2.2.2. Dokumentu-kodetzea

Corpuseko dokumentu guztiak kodetu egin behar dira, fitxa terminologikoak lantzean termino bakoitza nondik atera den jakin ahal izateko. Beraz, corpuseko dokumentu bakoitzari 'iturri-kodea' izeneko kode edo izen labur bat ematen zaio, eta kode hau erabiltzen da gero terminoaren iturria aipatzean. Termino bat husten denean iturri-kodea jartzen zaio beti, nahi izanez gero terminoak egiaztatu ahal izateko.

Kode-sistemak arbitrarioak izaten dira neurri batean. Ona izaten da nemoteknikoak izatea. Letra-konbinazio arbitrarioak edo zenbaki-konbinazio soilak zailak dira gogoratzen. Terminologia-lanean parte hartzen duten guztiek kode-sistema bera erabili behar dute; horregatik, terminologia-zentro bakoitzak bere kode-sistema izaten du.

Dokumentuen kodeen egiturari dagokionez, bada gomendio bat, ISO TC37 lantaldeak laneko agiri batean ezagutzera emandakoa. Gomendio horren arabera, lan monografikoen kodeek egitura hau izan beharko lukete: bi letra larri, lanaren egileari dagozkionak (normalean egilearen inizialak izaten dira); bi letra xehe, dokumentuaren izenburuko hitz garrantzitsuen adierazle; lau zenbaki, argitalpen-urtearenak; nahi izanez gero, liburuki-zenbakia, parentesi artean; azkenik, orrialde-kopurua.

Adib.:

JLLhg1993-133, ondorengo dokumentu honen iturria adierazteko kodea: Llamas José 1993: "Hidrología General: principios y aplicaciones", pág. 133.

Dena dela, esan behar da terminologia egiten duen erakunde bakoitzak bere sistema erabiltzen duela gehienetan. Elkarrekin lankidetzan aritzen direnen artean sistema bateragarria baliatzea da garrantzikoena.

2.2. Aholkulariak aukeratzea eta aditu-taldea eratzea

Aztergai den arloan diharduten profesionalen antolaketa ezagutu behar da: adar profesionalak, erakunde ordezkariak, terminologia hedatuko duten guneak, etab. Garrantzitsua da errealitate profesionala ezagutzera, beraiek izango baitira egindako terminologia erabiliko eta hedatuko dutenak. Horrez gain, beraiengana jo ahal izango da aholku eske ikerketan zehar.

Arloko profesionalekin harremanetan jartzea komeni da, profesional horien artetik aholkulariak aukeratu ahal izateko. Oso garrantzitsua da terminologia-lana arlo horretan espezializatutako adituek eta terminologoen osatutako taldeak egitea (aditu-taldea), terminologoak ez baititu jakintzaren atal guztiak menderatzen. Hortaz, adituen taldea bi motatako adituek osatzea komeni da: alde batetik, aukeratutako arloaren inguruko gaiak menderatzen dituztenak, oinarriko nomenklatura erabakitzeko, egokiak diren terminoak zehazteko, eta kontzeptuen arteko nahasketak eta zalantzak argitzeko, besteak beste; bestetik, euskara menderatzen dutenak, hizkuntzaren zuzentasuna bermatzeko eta erabilera okerrak saihesteko.

Horrela, bada, aholkularia aukeratzeko orduan kontuan hartzekoak dira, besteak beste, pertsona horrek gaiaren edo azpigaiaren gainean duen espezializazioa, arloari buruz duen ikuspegi orokorra, eskumena eta esperientzia profesionala, prestasuna, terminologiarekiko interesa, hizkuntza-ezaguera,

Taldeko aditu bakoitzak izango duen zeregina zehaztu behar da: hustuketak egitea, terminoen egokitasuna aztertzea, proposamenak egitea, hitz-zerrendak kritikatzeko, definizioak lantzea, etab. Halaber, adituek zeregina gauzatzeko modua ere erabaki behar da: idatzizko oharrak, batzordeak, bilerak.

Bestalde, taldeko adituez gain, ona izaten da noiz edo noiz zalantzak argi ditzaketen aholkulariak izatea, kontsulta puntualak egiteko.

2.3. Kontzeptu-sistema eraikitzea

2.3.1. Eremua egituratzea eta kontzeptuak mugatzea

Eremua ezagutu ondoren (dokumentazioa, errealitate profesionala, etab. aztertu eta gero), eremuko kontzeptu-sistema egituratzea komeni da. Izan ere, eremu bateko terminologia ez da termino-bilduma arbitrarioa. Eremu bateko terminologia eremu hori osatzen duten kontzeptuei esleitzen zaien izendapenen multzoa da; eta kontzeptu horiek kontzeptuen arteko harremanetan oinarritutako kontzeptu-sistema koherentea osatzen dute. Kontzeptu-sistema terminologia normalizatu eta uniformearen oinarria da.

Kontzeptu-sisteman eremuaren errealitatea islatzen da, mundu errealeko objektuei dagozkien kontzeptuak edo nozioak sailkatzen dira; izan ere, terminologiaren funtzioa objektuak izendatzea da, hau da, kontzeptuaren bidez errealitatearen eta hizkuntza-forma baten arteko harremana ezartzea. Kontzeptu-sistema eraikitzean, azpieremuen zerrenda egituratua egiten da, eremuko kontzeptuak behar bezala bereizi eta kokatzen dira, eta kontzeptuen arteko erlazioak finkatzen dira. Kontzeptuen arteko erlazioak hainbat motatakoak izan daitezke: erlazio hierarkiko generiko-espezifikoak; erlazio hierarkiko partitiboa (osotasuna vs. osoaren zatia); kausazko asoziazio-erlazioa; denboran edo espazioan oinarritutako asoziazio-erlazioa. Erlazio bakoitza zertan datzan jakin nahi izanez gero, ikus ISO 704:2000(E) eta ISO 1087-1:2000(E/F) arauak.

Kontzeptu-sistema lantzean, halaber, kontzeptuen definizioak jorratzen dira, kontzeptuen arteko harremanetan oinarrituz; izan ere, kontzeptuen arteko harremana ezartzeko, kontzeptu bakoitzaren ezaugarriak aztertzen dira, eta kontzeptuen ezaugarriak aztertzeko, kontzeptu bakoitzaren definiziora jotzen da, definizio formalik baldin badago behinik behin; aurrerago azalduko denez, definizioek kontzeptu-sistema islatu behar dute. Horrela, bada, kontzeptu-sistemaren egituraketa eta definizioen lanketa batera egin beharreko lana eta behin baino gehiagotan berrikusi beharrekoa da.

Ondo eginda dagoen egituraketak honako ezaugarri hauek izan beharko lituzke:

- Ikerketa-eremu osoa islatzea.
- Ikerketa-eremuko adar guztiak egituratuta izatea.
- Adar bakoitzaren barruko eta adarren arteko harremanak azaltzea.
- Bidezko edo baliagarri ez den kontzeptu-multzorik ez izatea.
- Egituraketa zehatza izatea: kontzeptu bera ezin da adar batean baino gehiagotan agertu.

Terminologoa behar beste denbora hartu behar du ikerketa-eremuko kontzeptu-sistema eratzeke; izan ere, kontzeptu-sistema zenbat eta zehatzagoa izan, orduan eta errazagoa izango da ondorengo urratsetako lana, eta orduan eta eraginkorragoa emaitza.

2.3.2. Eremu-zuhaitza eta fitxa terminologikoen sailkapena

Kontzeptu-sistema antolatzeke modurik erabiliena eremu-zuhaitzarena da. Eremu-zuhaitzaren bidez, eremuko kontzeptuak adar eta azpiadarretan sailkatzen dira, modu hierarkikoan. Adar eta azpiadar bakoitzari kode bat ematen zaio, kontzeptua zein sail edo azpisaili dagokion adierazteko. Ondoren, fitxa terminologikoa lantzeko urratsean, fitxa terminologikoko sailkapenean kontzeptuei dagokien sailaren edo azpisailaren berri ematen da, eremu-zuhaitzean ezarritako kodeen bidez. Modu horretan, fitxa terminologikoan argi eta garbi erakusten da kontzeptua eremu-zuhaitzeko zein tokitan kokatzen den.

Ondorengo adibidean, *Izen Geografikoen Hiztegia* egiteko oinarri hartutako eremu-zuhaitza ikus daiteke. Ezkerreko zenbakiak hiztegiak azpierzemuei emandako kodeak dira, eta kode horiek erabili zituen gero fitxa terminologikoa lantzean:

I. adibidea

O AURKINTZAK

1 OROGRAFIA

- 11 Lur-goraguneak
- 12 Lurrazaleko sakonuneak
- 13 Lur lauak
- 14 Isurialdeak
- 15 Berezko barrunbeak
- 16 Itsas eta kostaldeko erliebea

2 HIDROGRAFIA

- 21 Berezko ur-masak
- 22 Berezko ur-ibilguak
- 23 Ur-masa eta -ibilgu artifizialak
- 25 Obra hidraulikoak

3 LUR-ERABILERA

- 31 Basoak
- 32 Sastraka
- 33 Larre eta belardiak
- 34 Lur landua

4 BIZIGUNE IRAUNKORRAK

- 41 Populazio-guneak
- 42 Hirigune-elementuak
- 43 Eraikuntza isolatuak

5 INDUSTRIA

- 51 Industrialdea
- 52 Erauzteko industriak
- 53 Energia ekoizteko zentroak
- 54 Eraikuntza-industria
- 55 Zur eta paperaren industria
- 56 Oinarrizko industria
- 57 Nekazaritza eta elikagaien industria
- 58 Hondakinen tratamendua
- 59 Bestelako fabrikak
- 59A Bertan behera utzitako fabrika eta industria lokalak

6 HORNIDURAK

- 61 Administrazio-zentroak
- 62 Merkataritza-zerbitzuak
- 63 Laguntza-zerbitzuko zentroak
- 64 Kultura-zentroak
- 65 Hezkuntza-zentroak
- 66 Historia eta kulturako toki interesgarriak
- 67 Industria-ondarea
- 68 Osasun-zentroak
- 69 Erlijio-zentroak
- 69A Aisia eta kiroleko guneak
- 69B Ostalaritza
- 69C Ikerketa eta garapena
- 69D Ekonomia eta finantzako zerbitzuak
- 69E Seinaleak

7 KOMUNIKABIDEAK ETA GARRAIOAK

- 71 Aire-garraioa
- 72 Itsas garraioa
- 73 Trenbide-garraioa
- 74 Errepide-garraioa
- 75 Komunikazio eta garraioko bestelako instalazioak

8 BANAKETA POLITIKO-ADMINISTRATIBOA

- 81 Estatua
- 82 Autonomia Erkidegoa, Departamendua
- 83 Lurralde Historikoa
- 84 Udal-eremuaz gaineko entitateak
- 85 Udala
- 86 Udal-eremuaz azpiko entitateak
- 87 Herri-lur eta -larreak

Horrela, bada, eremu-zuhaitzak ikerketarako gida moduan balio du, bai hustuketa-plana egiteko orduan, bai terminoen bidez kotasuna erabakitzeko orduan, fitxak sailkatu eta ordenatzeko orduan, termino-unitateak modu logiko eta sistematikoan definitzeko orduan, edo terminoak datu-base batean sartzeko orduan.

2.4. Fitxa terminologikoen informazioaren egituraketa

Lanaren helburua zehaztutakoan, fitxa terminologikoetan jaso nahi den informazioa erabakitzen da. ISO 12620 arauarekin bat, fitxa terminologikoek datu hauek izan ditzakete:

- 1) Terminoa:
 - Termino-sarrerak.
- 2) Terminoari buruzko informazioa:
 - a.- Terminoaren ezaugarriak:
 - Termino-tipoa: besteak beste, forma nagusia, sinonimoa, forma laburra, forma osoa.
 - Oharra: esanahia argitzeko azalpen laburra.
 - Informazio gramatikala: kategoria gramatikala, generoa, numeroa.
 - Erabilera geografikoa.
 - Iturria eta orrialdea.
 - Testuingurua: terminoa agertzen den esaldia, nonbaitetik hartua.
 - Ponderazioa: terminoaren normalizazio-egoerari edo erabilgarritasunari dagokion marka.
 - b.- Baliokidetzak:
 - Baliokideak: beste hizkuntzetako sarrerak.
- 3) Kontzeptuaren deskribapenari buruzko informazioa:
 - Sailkapena: gaiaren eremu-zuhaitzaren arabera.
 - Definizioa: esanahiaren azalpen formala.
 - Azalpena: kontzeptuaren adierazpen informala.
- 4) Informazio administratiboa:
 - Kontzeptu-zenbakia.
 - Fitxa-arduraduna.
 - Azken aldaketan data.

Hortaz, lanaren helburuaren eta definizioaren arabera, fitxa terminologikoek izan ditzaketen datuetatik terminologia-lanean jaso nahi direnak zehaztuko dira.

Duela 15 urte ingurutik hona erabiltzen diren terminologia-fitxak euskarri informatikokoak dira, datu-base egokietan jasota egoten direnak.

2.5. Terminologiako datu-baseak kudeatzeko sistemak

Terminologia-lanean lantzen diren terminoak datu-base batean jasotzen dira, eta, hortaz, datu-basea antolatze sistemarik egokiena aukeratu behar da. Gaur egun informatikak eskaintzen digu terminologiako datu-baseak kudeatzeko sistema egokia. Hortaz, terminologia-fitxak behar bezala lantzeko datu-base informatiko aproposa baliatu behar da.

Gaztelania-euskara itzulpen baten hustuketatik ateratako termino-zerrenda kudeatzen saiatu den edozein itzultzailek daki zein mugatuak diren horretarako xede orokorreko datu-baseak (Access edo FileMaker bezalakoak). Ez dute sinonimiaren kudeaketarik onartzen. Sinonimoak erregistro berean komarekin edo puntu eta komarekin bereizita sartzen badira, ezin da haietako bakoitzari buruzko informazioa txukun antolatu eta ezin dira haien zerrenda ordenatuak atera; erregistro desberdinetan sartzen badira, berriaz, kontzeptu berari dagokion informazioa sakabanatu egin daiteke.

Fitxa terminologikoak kontzeptuka antolatzen dira, eta fitxa berean kudeatzen dira kontzeptu bati dagozkion informazio guztiak. Kontzeptu bati buruzko informazioak zuhaitz baten gisa antolatu ohi dira, datuen arteko erlazioak hierarkikoak izaten baitira askotan.


Hauek dira terminologiako datu-baseak kudeatzeko sistema bati eskatu behar zaizkion ezaugarri nagusiak:

- Fitxa terminologikoa norberak definitu ahal izatea. Horretarako, ISO 12620:1999 datu-kategoriak (aurreko puntuan zerrendatuak) kudeatzeko gai izan behar du aplikazioak. Datu-egitura hori hierarkikoa da neurri batean.
- Eremuen luzerari mugarik ez jartzea.
- Eremuak errepikagarriak izatea. Esate baterako, terminoaren eremua errepikagarria izatea, sinonimia kudeatu ahal izateko. Terminoaren iturriaren eremua ere errepikagarria izatea komeni da, iturri bat baino gehiago jasotzeko.

Gaur egun merkatuan dauden sistemen artean, Trados-en MultiTerm da erabilgarrienetako bat. Ez du erabateko malgutasuna eskaintzen fitxa definitzean edo esportazio-eredua prestatzean. Dena dela, nahiko erraz ikas dezake edonork fitxa terminologikoen oinarriko eragiketak egiten. Inportazio-esportazioko formatua SGML estilokoa da, baina berezia. Badu atributu izeneko eremu-mota bat, bere balioak zerrenda baten bidez balidatzeko aukera ematen duena. Baina balio horien zerrenda ezin da oso luzea izan. Balio dezake, adibidez, ponderazio-markak balidatzeko, baina ez, inola ere, iturri-kodeak balidatzeko.

Hona hemen Trados-en MultiTerm-eko terminologia-fitxa baten adibidea:

II. adibidea



3. TERMINOLOGIA-LANA EGITEA

Terminologia-lan sistematikoaren hirugarren fase honetan, eremuko kontzeptu-multzoa lantzen da, eta, lanaren helburuaren arabera, termino bakoitzari buruzko informazio sistematikoa jasotzen da.

3.1. Oinarrizko nomenklatura finkatzea

Hiztegiaren oinarrizko termino-zerrenda da nomenklatura. Euskara normalizazio-bidean dagoela kontuan hartuta, eta, hortaz, aintzakotzat izanda gehienetan terminologia-laneko erdararen bat normalizatuagoa egoten dela, ona izaten da, lanerako aukeratu-tako hizkuntzen artetik arlo jakinean normalizazio-maila handiena duen hizkuntza hautatzea eta lehendabiziko oinarrizko nomenklatura hizkuntza horretan finkatzea. Esaterako, Informatikari buruzko hiztegi bat egin nahi izango balitz, egokia izan liteke ingelesezko oinarrizko nomenklaturatik abiatzea. Ostera, Zuzenbideko hiztegi batean, Hego Euskal Herrian erabiltzekoa bada, gaztelania hartuko litzateke oinarrizko nomenklatura finkatzeko.

Oinarrizko nomenklatura osatzeko terminoak aukeratzeko orduan, arlo horretako hiztegi edo glosario terminologiko fidagarriren batean oinarritu daiteke. Landuko den arloan horrelakorik egon ezean, obra teknikoaren hustuketara jotzen da. Bestalde, gida modura, bigarren fasean eraikitako kontzeptu-sistema erabiltzea komeni da, eremuko adar guztiak jorratzen direla bermatzeko.

Arlo jakineko adituek asko lagun dezakete zeregin honetan, eta, hortaz, behin-behineko oinarritzko zerrenda landutakoan, komenigarria izaten da arloko adituei bidaltzea, egoki iruditzen zaizkien kritikak eta oharrak egin ditzaten. Gerta liteke adituren batek behin-behineko zerrendak zabalagoa izan behar duela esatea, eta, ondorioz, ordura arte kontuan ez izandako beste testu espezializaturen batera jo behar izatea, hura hustu eta bertatik termino gehiago ateratzeko.

3.2. Hustuketa terminologikoa

Oinarritzko nomenklaturaren behin betiko zerrenda prest izandakoan, hurrengo pausoa euskarazko ordainak eta aukeratutako gainerako erdaretako ordainak jasotzea da. Euskarazko ordainei dagokienez, lehendabizi euskarazko dokumentu teknikoak husten dira, oinarritzko nomenklaturako terminoentzako ordainak lokalizatzeke; hustuketaren bidez lortzen ez diren ordainak osatzeko, edo, bestela ere, egileak egoki baderitzo, termino-sorkuntzara edo neologismora jo daiteke (ikus eskuliburu honetako 4. puntua). Gainerako erdaretako ordainak jasotzeko, berriz, askotan datu-base edo hiztegi terminologikoetara jo ahal izaten da (beti ere fidagarriak izan behar dute), eta, bestela, corpora osatzen duten dokumentuen hustuketara.

Lengoaia Naturalaren Prozesamenduan (LNP) *terminologiaren erauzketa automatikoa* egiteko tresnak garatzen ari dira azken urteotan, batez ere ingeleserako. Teknika linguistikoak eta estatistikoak erabiliz lokalizatzen dira terminoak. Euskararako aplikazioak berezko zailtasunak dauzka, lematizazioarena, esate baterako.

3.2.1. Terminoak lokalizatzea eta zedarritzea

Espezializazio-eremuko kontzeptuak izendatzen dituzten unitate linguistikoak hustuketa-corpuseko dokumentuetatik lokalizatu eta zedarritu behar dira. Hori da hustuketa terminologikoa egitea. Ondorengo lerroetan ikusiko denez, ez da lan erraza terminoak lokalizatzea eta zedarritzea.

Batetik, kontuan izan behar da testu espezializatuetan agertzen diren unitate linguistiko guztiak ez direla ikerketa-eremuko termino izaten; aitzitik, beste arlo batekoak edo lexiko orokorreko hitzak izan daitezke. Hortaz, espezialitate-arloko unitate linguistikoak lexiko orokorreko hitzetatik bereizi behar dira, eta, horretarako, komenigarria izaten da hustutzaileak neurri batean gaia ezagutzea; zenbat eta adituagoa izan eskuartean duen arloan, orduan eta errazago lokalizatuko ditu bertako unitate terminologikoak.

Bestetik, unitate terminologiko guztiak ez dira hitz bakarrekoak, denetarik aurki daiteke, besteak beste, unitate sintagmatiko lexikalizatuak (*gari-jotzeko makina*), kolokazioak (*ebazpena eman*) eta itzulpen-unitate edo esamoldeak (*frogaldia ireki dadila eskatze*). Guztiak dira unitate terminologiko, eta, beraz, terminologia-lana egiteko orduan unitate-mota bakoitza dagokion moduan hauteman, zedarritu eta landu behar da.

Unitate bakunek ez dute zedarritzeko arazorik ematen. Aitzitik, sintagma terminologikoak hautemateko orduan, arazoak sor daitezke. Unitate terminologiko konplexuen kasuan, hau da, bi edo hiru hitzez, edo gehiagoz, osatutako sintagma terminologikoen kasuan, zaila izaten da, batzuetan, termino bakarra edo termino-multzoa den antzematzea. Terminologoez eta itzultzaileek askotan jotzen dute sintagmaziara termino berriak itzultzeko edo sortzeko, baliabide egokia baita; hala ere, zedarritzeko arazoak sortzen ditu. Horrela, bada, kontuan hartzekoak dira sintagma terminologikoak bereizteko irizpide objektiboak (Diaz de Lezana 1992:139-142). Hona hemen funtsezkoenak:

- Sintagma terminologikoak erreferentzia bakarrekokoak izatea, kontzeptu bakarra izendatzea, terminoa esanahi-unitatea da eta. Era berean, ezin banatu izatea esanahia aldatu gabe, terminoa zatiezina baita.
- Oinarri bakarrekoko izatea, hots, sintagma terminologikoak buru bakarra izatea. Adib.: *peritu bidezko froga*
- Lexikalizazio-maila, hau da, sintagmako elementuen arteko lotura-maila, handia izatea. Sintagma terminologikoan beste elementurik gehitzerik ez badago, lexikalizazio-maila sendoa da. Adib.: *gizarte-segurantza*
- Sintagma terminologikoaren ordeztu, sinonimotzat jotzekoa den beste unitate linguistiko bat erabili ahal izatea. Halaber, arlo berean antonimoren bat izatea.
- Arlo jakineko testuetan sintagma bera maiz azaltzea.
- Sintagma terminologikoko determinatzaileek sintagmako buruarekin erlazio egonkorra eta funtsezkoa izatea. Adib.: *angelu zorrotz; ez, ordea, angelu urdin.*
- Sintagma terminologikoak izendatzen duen kontzeptua beste hizkuntzetan unitate linguistiko bakarraren bidez adieraztea.

3.2.2. Lematizazioa

Terminoak lokalizatu eta zedarritutakoan, fitxetan jaso behar dira, baina ez beti testuan agertutako modu berean. Kontuan izan behar da hiztegi-takako eredu estandarrean jaso behar direla, eta, horretarako, behar bezala lematizatu behar direla. Lematizazioa unitate linguistikoaren oinarritzako forma ateratzeko prozesua da. Hona hemen lematizazioarako zenbait arau:

- Izenak nominatibo mugagabeen jasotzen dira. Salbuespena: beti pluralean erabiltzen direnak edo pluralean erabilita beste adiera bat dutenak; adibidez, *jarduketak*, Zuzenbide prozesalean, pluralean erabilita *actuaciones*, *autos* esan nahi du. Salbuespena dira, era berean, izen bereziak, mugatuan jasotzen baitira; esaterako, *Herri Kontuen Euskal Epaitegia*.
- Aditzak infinitiboan jartzen dira.
- Forma eliptiko edo birtualak osorik lematizatu behar dira. Esaterako, *hirigintzako batzorde* terminoari erreferentzia eginez *batzorde* bakarrik agertzen bada, termino osoa jaso beharko da.
- Forma laburtuak (siglak, laburdurak, ikurrak, akronimoak) dauden bezala husten dira erabilera orokorrekoak direnean. Adibidez, Au (urrearen ikurra). Hala ere, testu horretan bakarrik erabili bada forma laburtua, espazio-arazoengatik, esaterako, orduan osorik jaso beharko da.
- Serie errepikatuak, berrelkartzeak, askatu eta osatu egin behar dira. Adib.: ‘Kultura eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailek erabaki dute’ perpausetik, alde batetik, *Kultura Saila* eta, bestetik, *Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila* terminoak banan-banan jaso beharko dira.

- Terminologian, garai bateko grafiak ez dira gordetzekoak; idazkera moldatu eta gaurkotu beharra dago, beraz. Gaur egungo lexiko normalizatuaren arabera idatzi behar dira terminoak.
- Letra xehe eta larriei dagokienez, terminoak letra xehez idazten dira, larriz idazteko arrazoi berezirik ez badago, behinik behin. Salbuespenak izen propioak eta siglak dira, esaterako.

3.3. Fitxa terminologikoak lantzea

Oinarrizko nomenklatura finkatu eta hustuketa terminologikoa egindakoan, kontzeptu berari dagozkion terminoak fitxa batean jasotzen dira. Fitxa terminologikoan, terminoekin batera, kontzeptuari eta terminoei buruzko informazioa jasotzen da, modu egituratuan. 2.4. atalean zehaztu dira fitxa terminologikoan, ISO 12620 arauarekin bat, jaso beharko liratekeen datu-motak. Dena den, eskuliburu honetako 1. atalean esan bezala, fitxa terminologikoaren osagaiak terminologia-lanaren ezaugarrien arabera izaten dira.

3.3.1. Euskarazko fitxa terminologikoen datuak

Hona hemen fitxa terminologikoetan kontzeptu bakoitzari buruz bil daitekeen informazio sistematiko eta egituratua. Informazio bakoitzari datu deitzen zaio terminologian.

- a) Datu administratiboak: fitxa-arduraduna, fitxa-zenbakia, aldaketa-data.
- b) Kontzeptuari dagokion sailkapena edo erabileremua.
- c) Euskarazko terminoak. Termino bakoitzari buruz:
 - Tipoa: 1) forma osoa, laburra; 2) termino nagusia, sinonimoa.
 - Terminoaren informazio gramatikala: kategoria eta numeroa.
 - Erabilera geografikoa: Ipar., Heg., Bizk., Gip., Lap., Naf., Zub.
 - Terminoari buruzko oharra: terminoa argitzeko.
 - Terminoaren iturria: terminoa nondik jaso den, dokumentuaren kodea.
 - Testuingurua: terminoa agertzen den esaldia.
 - Testuinguruaren iturria.
 - Ponderazio-marka.
- d) Kontzeptuaren definizioa.
 - Definizioaren iturria.
- e) Kontzeptuaren azalpena edo irudiren bat.
- f) Baliokideak. Kontzeptu bera izendatzeko gainerako erdaretako terminoak: es (gaztelania), en (ingeleza), fr (frantsesa), de (alemana), la (latina), ca (katalana). Baliokide bakoitzari buruz:
 - Tipoa: 1) forma osoa, laburra; 2) termino nagusia, sinonimoa.
 - Terminoaren informazio gramatikala: kategoria, numeroa eta generoa.
 - Erabilera geografikoa: US, GB, FR, CA.
 - Terminoari buruzko oharra: terminoa argitzeko.
 - Terminoaren iturria: terminoa nondik jaso den, dokumentuaren kodea.

Adierazitako datu horietatik, aurretiaz ezarritako kode bidez ematen dira ondorengo hauek: sailkapena, tipoa, informazio gramatikala, erabilera geografikoa, iturria eta ponderazio-marka. Bestalde, ez da normala fitxa batean datu guztiak azaltzea. Fitxako kontzeptuaren arabera, fitxan landuko diren datuak ere mota batekoak edo bestekoak izango dira. Ikus jarraian datozen III. eta IV. adibideak.

III. adibidea

```

<sortze data>1999-06-08
<aldatze data>2001-11-21
<sailkapena>MB/LLA
<euskara>kontratu finko
<iturria>AC49
<euskara>kontratu mugagabe
<iturria>AC49
<euskara>lan-kontratu mugagabe
<iturria>IC26
<ponderazioa>B
<testuingurua>Enplegu-eskaintzan sartzen ez diren lanpostuak betetzeko ez da lan-kontratu mugagaberik egiterik izango
<iturria>IC26
<euskara>lan-kontratu finko
<iturria>IC26
<ponderazioa>B
<testuingurua>Gutxienez bi urtetan lan-kontratu finkoa izan dutela egiaztatzen duten langile finkoei eskainiko zaizkie lanpostuak
<iturria>IC26
<definizioa>Lan-kontratazioaren eremuan enplegu-egonkortasunaren irizpidea dela-eta sortzen den kontratu-mota. Irizpide horren arabera, kontratu mugagabea duten langile finkoek egin behar dituzte enpresa bateko lan iraunkorrak eta ohikoak. Langileen Estatutuko 15.1 artikuluari jarraiki, lan-kontratua, besterik adierazten ez bada, mugagabea da.
<iturria>IC26
<espainiera>contrato fijo
<iturria>AC49/GB35
<espainiera>contrato por tiempo indefinido
<iturria>GP53
<espainiera>contrato laboral indefinido
<iturria>IC26
<espainiera>contrato laboral fijo
<iturria>IC26
<frantsesa>contrat à durée indéterminée
<iturria>GO11
<ingeleza>indefinite contract
<iturria>GO11

```


IV. adibidea

```

<sortze data>2001-03-26
<aldatze data>2001-04-04
<sailkapena>NR
<euskara>Konstituzio Auzitegia
<iturria>AB13/AC57/1576/IC19
<ponderazioa>J
<tipoa>LA
<tipoa>TN
<euskara>KA
<iturria>AC57
<tipoa>LB
<euskara>Auzitegi Konstituzionala
<iturria>AB13/AC57
<definizioa>Konstituzioa errespetatzen bada eta legeak Konstituzioarekin bat etor daitezela zaintzen duen
auzitegia.
<iturria>GO21
<espainiera>Tribunal Constitucional
<iturria>KD20/IB01
<tipoa>LA
<espainiera>TC
<iturria>2581
<tipoa>LB

```

3.3.2. Fitxa terminologikoaren datuak, banan-banan

A) Kontzeptuaren sailkapena

Fitxa terminologikoko kontzeptuari dagokion jakintza-arloaren berri ematen du. Fitxa terminologiko bakoitzeko terminoei sail bat dagokie, terminologiari buruzko teoriaren oinarriko bi printzipio hauei jarraiki: *a)* unitate linguistikoa terminoa da, baldin eta espezialitate-eremu batekoa bada; *b)* errealitate bera kontzeptu ezberdinen bidez irudika daiteke jakintza-arloaren arabera, eta, hortaz, errealitate hori izendatzeko hainbat termino erabil daiteke.

Terminologia-lana prestatzeko urratsean azaldu bezala, oso garrantzitsua da eremuko kontzeptuak ondo egituratzea, kontzeptu-sistema terminologia-lana jorratzeko oinarria baita. Kontzeptu-sistema eraikitzean, kontzeptuak identifikatu eta sailkatu egiten dira, eta azpisailkapenen bidez beraien arteko erlazioa ezartzen da. Kontzeptuak ondo egituratuta izateari esker, terminoen arteko harreman hierarkikoak eta analogikoak finkatu ahal izaten dira, termino orokor eta berezien arteko harremanak, atalen eta osoaren arteko harremanak, eta detektatu gabeko sinonimoak aurkitu ahal izaten dira. Kontzeptuak multzokatuta izateak lagundu egiten du definizioak aukeratzeko edo berridazten, eta terminoaren nozio-sare moduan jaso beharreko erreferentziak zehazten.

2.3.1. puntuan azaldu bezala, eremu-zuhaitza antolatzean, adar eta azpiadar bakoitzari kode bat ematen zaio. Fitxa terminologikoak lantzeko urrats honetan, berriz, kontzeptu-sistema eraikitzean finkatutako sailkapen eta azpisailkapenetan oinarrituz eta ezarritako kodeez baliatuz, kontzeptuak izendatzeko terminoak zein erabileremutakoak diren jasotzen da fitxa terminologikoan. Hortaz, fitxa terminologikoan agertzen den sailkapena edo azpisailkapena kontzeptu-sisteman ezarritako antolaketaaren arabera izaten da. Ikus I. adibidea: eremu-zuhaitzean, adar bakoitzari dagokion saila jaso da, kode bidez. Ikus, halaber, III. eta IV. adibideak: fitxa terminologikoetako sailkapen-eremuan, kode bidez zehaztu da fitxako kontzeptuari dagokion saila.

III. adibidean:

MB = Administrazio Hiztegia, Funtzio Publikoa

LLA = Lan-hitzarmenak eta kontratuak

IV. adibidean:

NR = Zuzenbide prozesala

Hona hemen Euskalterm banku terminologikoan erabiltzen den zerrenda, lehen letrari dagokiona:

A	Matematika eta Estatistika
B	Kimika eta Fisika
C	Biologia
D	Geologia
E	Medikuntza
F	Nekazaritza, Arrantza
G	Informatika
H	Garraioa, Posta, Telekomunikazioak
I	Eraikuntza, Hirigintza
J	Historia, Gai militarrek
K	Industria
L	Merkataritza, Lan-harremanak
M	Administrazioa
N	Zuzenbidea
O	Ekonomia eta Enpresa
P	Politika, Soziologia, Antropologia
Q	Geografia
R	Filosofia
S	Erljioa
T	Psikologia, Pedagogia
U	Hizkuntzalaritza, Literatura
V	Informazio-zientziak, Dokumentazioa
W	Arteak
X	Kirola, Jokoak, Aisia
Y	Izenak, Tituluak
Z	Laburtzapenak

Kontzeptuaren sail zehatzaren berri emateak kontzeptu bera mugatu eta argitu egiten du, eta eremu-zuhaitzean duen lekua erakusten du. Kontzeptu bati eremu bat baino gehiago esleai dakioke, eta eremuak hierarkikoki antola daitezke, kontzeptuen arteko harremanak argiago ikus daitezke. Sailkapenak adierazteko sinboloak ere finka daitezke.

B) Termino-sarrera

Hizkera espezializatuan kontzeptu jakina izendatzeko unitate linguistikoa da terminoa. Aurreko puntuan azaldu denez, terminoak hitz bakarrekoak edo hitz bat baino gehiagokoak izan daitezke.

Fitxa terminologikoko sarrera termino lematizatua izaten da. Aurreko puntuan azaldu da lematizazioa zertan datzan.

Eremu bateko kontzeptuak izendatzeko terminoak ezartzeko orduan, ondorengo helburu ideal hau lortu beharko litzateke teoriarik: termino batek kontzeptu bakarra izendatzea, eta kontzeptu bat izendatzeko termino bakarra egotea; baldintza hori betez gero,

monosemia dagoela esaten da, eta anbiguotasun-arazoak ekiditen dira. Hala ere, egoera ideal hori gutxitan betetzen da, espezializazio-maila handiko erabileremuetan izan ezik.

Aitzitik, terminologiaren teoria orokorrean garrantzi berezia du sinonimiak; izan ere, terminologian normala izaten da kontzeptu bat izendatzeko termino bat baino gehiago egotea. ISO 1087 arauarekin bat, hizkuntza berean kontzeptu bakarra adierazteko izendapenen arteko erlazioa da sinonimia. Sinonimoak dira kontzeptu bera izendatzen duten bi unitate linguistiko, semantikoki baliokideak direnak. Hortaz, fitxa terminologikoan, hizkuntza bakoitzeko termino guztiak, edozein motatakoak (forma luze nahiz labur, forma zientifiko nahiz erabilera orokorreko) sinonimoak dira, kontzeptu bera izendatzen baitute. Ikus III. eta IV. adibideak.

Kontzeptuaren eta izendapenaren arteko harremanak direla eta, aipatzekoa da, era berean, praktikan gerta litekeela izendapen berak kontzeptu desberdinak adieraztea. Kasu hori ez da, ordea, berdin ikusten lexikografian edo terminologian. Lexikografiak bide semasiologikoa egiten du: hitzetik abiatzen da esanahira iristeko. Izendapen batek hizkuntzaren baitan dituen adiera guztien berri ematea izaten da lexikografia-lanaren egitekoa. Terminologiak, aldiz, bide onomasiologikoa egiten du: kontzeptutik abiatzen da izendapenera iristeko. Kontzeptua, definizioz, eremu jakin bateko kontzeptu-sistemaren barruan mugatzen da, eta ondoren dator izendapena zein duen jakitea.

Hala bada, kontzeptuaren eta izendapenaren arteko harremana hizkuntzaren baitan kokatzen da lexikografian; eremuko kontzeptu-sistemaren barruan, terminologian. Abiapuntuak horiek izanda, lexikografiarentzat polisemia duen hitza, homonimia harremana duten bi termino gertatzen dira terminologiarentzat. Adib, *sagu* (Biologian) - *sagu* (Informatikan).

Era berean, terminologiaren teoriak bestela agindu arren, forma linguistiko batek adiera bat baino gehiago izan dezake espezialitate-eremu berean ere. Adibidez, Zuzenbide prozesalean *acusación* terminoak bi adiera izan ditzake, '*akusatzen duen alderdia edo bere abokatua*' batetik, eta '*akusatzeko idatzizko edo ahozko azalpena*' bestetik; termino polisemikoa da, beraz. Termino polisemikoen kasuan, kontzeptu bakoitzeko fitxa bat egin behar da. Fitxako bestelako datuen bidez adierazten da esanahi-desberdintasuna zertan datzan.

Terminoek, aldamenean, hainbat ohar izan dezakete, jarraian zehazten diren terminoari buruzko datuak, hain zuzen ere, eta terminoari buruzko informazio gehigarria ematen dute. Terminoari buruzko datu hauek ez dira sistematikoak, behararen eta egokitasunaren arabera jartzen dira.

C) Termino-tipoa

Termino-tipoak terminoaren ezaugarri bat adierazten du.

Mota askotako termino-tipoak daude, baina euskarazko terminologia-lanetan gehien erabiltzen direnak besterik ez dira aipatuko hemen. Termino-tipoei buruz eta, oro har, fitxa terminologikoko datuei buruz gehiago jakin nahi izanez gero, ikus www.ttt.org web gunea.

Euskarazko terminologia-lanetan bi termino-tipo sail bereizi ohi dira:

- Termino nagusia vs. sinonimoa.
- Forma osoa vs. forma laburra.

1.a) Termino nagusia

Kontzeptua izendatzeko lehentasunezko gisa aukeratutako terminoa.

1.b) Sinonimoa

Termino nagusiak izendatzen duen kontzeptu bera edo antzekoa adierazteko terminoa.

Termino nagusiari kontrajartzen zaizkion sinonimo hauek termino osagarriak izaten dira, arrazoiaren bat egoten da-eta kontzeptu bera izendatzeko termino bat nagusitzat jotzeko eta gainerakoak sinonimo osagarritzat. Arrazoiak hainbat izan daitezke, besteak beste, erabilera nagusia, normalizazio-maila, sustapena. Ikus IV. adibidea: *Konstituzio Auzitegia* (TN: termino nagusia) – *Auzitegi Konstituzionala* (sinonimoa); adibide honetan, lehenengoari termino nagusiaren marka jarri zaio, forma hori sustatu nahi delako.

Bestalde, badira kuasi-sinonimo deitzen direnak. Kuasi-sinonimoak dira hizkuntza berean kontzeptu bera edo antzekoa izendatzen duten terminoak, baina termino nagusiarekin erabat trukagarriak ez direnak, zenbait testuingurutan soilik erabiltzekoak izateagatik, besteak beste. Adibidez, *buruko min* eta *zefalalgia* Medikuntzan.

2.a) Forma osoa

Terminoaren adierazpen osoa, adierazpen laburtua ere izaten duena. Adib.: *Prozedura Zibileko Legea* (forma osoa) – *PZL* (forma laburra)

2.b) Forma laburra

Kontzeptu bera izendatzen duen forma osoari hizkiren bat kenduz gero sortzen den terminoa. Forma laburrak hainbat motatakoak izan daitezke. Hona hemen nagusiak:

a) Laburtzapena. UZEIren *Laburtzapenen Gidaliburua* (1988) lanean azaldutakoarekin bat, laburtzapenak hiru mota nagusikoak izan daitezke:

- Laburdura: terminoaren forma laburtua, hura osotzen duten letrak gutxituz edo murriztuz eratzen dena.

Adib.: *adizlagun* – *adlg.*

- Ikurra edo sinboloa: kontzeptu bat izendatzen duen letra, letra-multzoa edo zeinu grafikoa, zein guztien konbinazioa.

Adib.: *kilogramo* – *kg*

- Sigla: hitz anitzeko terminoen hitzen hasierako letrekin eratzen dena.

Adib.: *Balio erantsiaren gaineko zerga* – *BEZ*

b) Termino murriztua. Hitz anitzeko terminoaren aldaera, hitz gutxiago jarrita eraten dena. Termino laburtu asko izen berezi luzeen forma laburtuak izaten dira.

Adib.: *pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpen* – *errentaren aitortpen*

c) Termino trunkatua. Terminoaren silabaren bat edo beste elementuren bat kenduta eratzen den forma laburra.

Adib.: *automobila* – *autoa*

d) Akronimoa. Siglazioz sortutako hitza, bereziki hitz arrunt bat bezala irakurri edo ahoskatzen dena.

Adib.: *radar*, *informatika*

Aurretik azaldu denez, fitxa terminologikoetan, termino-tipoa kode bidez jasotzen da. IV. adibidean, esaterako, *Konstituzio Auzitegia* sarrerari LA kodea jarri zaio, termino osoa dela adierazteko; *KA* sarrerari, berriz, LB kodea, forma laburra dela aditzera emateko.

Euskarazko terminologia-lanetan gehien erabiltzen diren termino-tipoak azaldu dira. Horiez gain, beste hauek ere aipa daitezke:

- Nazioarteko termino zientifikoa: erakunde eskudunak erabakitako nazioarteko nomenklatura zientifikoko terminoa. Adib.: *Homo sapiens*
- Izendapen arrunta: nazioarteko termino zientifiko baten sinonimoa, hizkera jakin batean erabiltzen dena. Adib.: *gatz arrunt*, *sodio kloruro*-ren orde.
- Nazioarteko terminoa: ortografia edo fonetika aldetik hainbat hizkuntzatan berdina edo antzekoa den terminoa. Adib.: en *alcohol*, fr *alcool*, de *Alkohol*, es *alcohol*, eu *alkohol*.
- Unitate fraseologikoa: bi hitzez edo gehiagoz eratutako unitatea izaten da, eta esanahia normalean ezin jaria daiteke unitatea osatzen duten hitzen esanahia konbinatuz. Unitate fraseologikoaren azpian askotan kontzeptu bat baino gehiago egoten den arren, terminotzat jo daiteke eta datu-base terminologikoan unitate terminologiko moduan landu daiteke. Unitate fraseologikoak dira, esaterako, kolokazioak eta perpaus eginak:
- Kolokazioa: elkarrekin joan behar duten hitzen konbinazioa; hitzek ez dute zertan bata bestearen aldamenean egon. Adib.: *erabakia hartze*
- Perpaus eginak: perpaus lexikalizatuak, finkatutakoak, normalean hurrenkera finkoa izaten dutenak. Adib.: *epaile jn.aren/and.aren baimenarekin*

D) Informazio gramatikala

Terminoari buruzko informazio gramatikala bi motatakoa izaten da euskaraz: kategoria gramatikala eta numeroa. Gainerako hizkuntza askotan, berriz, generoa ere adierazten da.

Informazio gramatikalaren datua ez da beti jartzen; esanahia edo erabilera argitu nahi denean soilik ipintzen da. Adib.: *zitat* (iz.); izan ere, bestela aditza dela uler baitaiteke.

1.- Katgoria gramatikala

Terminoaren katgoria gramatikala aurretiaz ezarritako kodeen bidez adierazten da fitxan. Kode horiek, normalean, lexikografian erabiltzen diren berak izaten dira.

Adib.:

- iz. Izena
- ad. Aditza
- adj. Adjektiboa

2.- Numeroa

Terminoak izendatzen dituen objektu-kopurua adierazten du.

- Singularra (sing.): objektu bakarria izendatzen duen terminoaren (normalean izenaren) forma.
- Plurala (pl.): objektu bat baino gehiago izendatzen dituen terminoaren (normalean izenaren) forma.

Azpimarratzekoa da, termino baten forma singularrak eta pluralak kontzeptu ezberdina izendatzen dutenean, fitxa ezberdinetan jartzekoak direla; izan ere, datu-basea antolatzeko printzipioa baita fitxek kontzeptu bana jasotzea.

Numeroaren bidez, normalean, terminoa singularra edo plurala den adierazten da. Hala ere, adieraz daiteke, era berean, terminoak izendatzen duen kontzeptua kontagarria ala kontaezina den, edo unitate bakarria ala unitate bi izendatzen dituen.

3.- Generoa

Unitate linguistikoa maskulinoa, femeninoa edo neutroa den adierazten du generoak : m., f., nt. Euskarazko hitzek ez dute generorik; hizkuntza batzuetako hitzak bi generokoak izan daitezke (gaztelaniazkoak, adibidez); beste batzuetakoak, berriz, hiru koak (alemanekoak, esaterako).

Hona hemen Euskalterm-en informazio gramatikala aditzera emateko erabiltzen diren laburdurak (lexikografiako berak), euskaraz, batetik, eta ingelesez, gaztelaniaz eta frantsesez, bestetik. Izan ere, dagokion hizkuntzako laburdura jartzen zaio termino bakoitzari:

eu: iz. | iz. pl. | izond. | izlag. | adj. | ad. | da ad. | du ad. | dio ad. | zaio ad. | adb.
 es, fr, en: n. | n. m. | n. f. | n. pl. | adj. | v. | v. tr. | v.intr. | v.pron.

E) Erabilera geografikoa

Datu honen bidez, terminoa hizkuntza bereko zein herrialdetan edo herrialde bako zein eskualdetan erabiltzen den adierazten da.

Ahal dela, ISO 3166:1993 arauan ezarritako herrialde-kodeak erabili behar dira. Esaterako, ingelesezko terminoa Britainia Handikoa edo Estatu Batuetakoa den adierazteko, GB eta US kodeak erabiltzen dira; frantsesekoa Frantziakoa edo Kanadakoa den adierazteko, berriz, FR eta CA.

Bestalde, aipatutako ISO arauan agertzen ez den eskualderen bat zehaztu nahi bada, eskualdea izendatzeko erabiltzen den kodearen berri eman behar da terminologia-laneko atalen batean. Horixe da, esaterako, euskarazko terminoen kasua.

Euskarazko terminoetan Iparraldekoa (Ipar.) edo Hegoaldekoa (Heg.) den adieraz daiteke. Era berean, euskalkia ere zehatz daiteke: Bizk., Naf., Gip., Lap., Zub.

Adib.:

eu	koltxoi (Heg.) lastaira matalaz (Ipar.)
es	colchón
fr	matelas

F) Testuingurua

Testuinguruak terminoaren esanahia eta erabilera argitzeko balio du. Dena den, datu hau ez da sistematikoki erabiltzen, komenigarritzat jotzen denean soilik baizik.

Terminoa agertzen den testuingurua hustuketa-corpusetik hartutakoa izaten da. Fitxa terminologikoetan testuinguru bat baino gehiago sar daiteke termino bakoitzeko, baina kontzeptuari buruzko definizioa ere azaltzen denean, asko jota bi testuinguru sar-tea gomendatzen da. Ikus III. adibidea.

Fitxan sartzen diren testuinguruen testuek jatorrizkoak izan behar dute, eta aldaketaren bat egin nahi bada, aldaketak ezin du inoiz ez zentzua ez egokitasuna ukitu. Euskararen kasuan, kontuan izan behar da testuak askotan itzuliak izaten direla.

Testuinguruari iturria jarri behar zaio, dagokion kodearen bidez, corpuseko zein dokumentutik hartu den aditzera emateko.

G) Oharrak

Terminoari buruzko oharrean, aurreikusi gabeko informazioa, sistematikoa ez dena, ager daiteke, bestelako datuetan azaltzen ez den informazio osagarria.

Oharrak linguistikoak, terminologikoak, teknikoak edo entziklopedikoak izan daitezke, eta terminoen, baliokideen nahiz definizioen inguruan egin daitezke.

H) Ponderazio-marka

Ponderazio-markaren bidez terminoa baloratzen da, aurretiaz ezarritako irizpideak erabiliz. Balorazioa hainbat mailatakoa izan daiteke. Esaterako, terminoak normalizatzeko eskumena duen erakunderik badago, termino bati esleitzen zaion normalizazio-mailaren adierazgarri izan daiteke. Ostera, terminologia deskribatzailean, hau da, arauemailea edo normalizatzailea ez den terminologian, ponderazio-markak terminoek duten erabilgarritasuna adieraz dezake.

Terminologian honako ponderazio-marka hauek erabil daitezke, besteak beste: termino normalizatua (batzorde ofizialen batek normalizatua), termino lehenetsia (lehentasunezko gisa aukeratua), termino tonartua, termino baztertzekoa (onartzekoa ez dena), termino gomendatua (adituren batek gomendatutakoa), termino proposatua, termino berria (sartu berria dena). Euskararen kasurako, Terminologia Batzordean zehaztuko ditu Euskaltermen erabiliko diren markak.

I) Definizioa

1.- Definizioaren ezaugarriak

Definizioa kontzeptu baten deskripzioa da, deskribatutako kontzeptua kontzeptu-sistema barruko gainerako kontzeptuetatik bereizten duena.

Termino bat definitzeko, termino horrek izendatzen duen kontzeptua aztertu behar da, definitzea kontzeptuak deskribatzea, mugatzea, bereiztea baita. Termino-definizioan, kontzeptuaren deskribapena bukatzen da kontzeptu hori kontzeptu-sistema barruan kokatu ahal izateko eta beste kontzeptu guztietatik bereizi ahal izateko informazio guztia ematen denean.

Horrela, bada, definizio *intentsionalak* dira terminologian egokienak: alde batetik, arloa argi eta garbi adierazten dute, eta, bestetik, kontzeptuaren ezaugarriak eta mugak behar bezala zehazten dituzte, definitutako kontzeptua arlo bereko beste kontzeptuetatik argi eta garbi bereiziz. Definizio-mota honek kontzeptu-sistema eraikitzean ezarritako kontzeptu-erlazioak hartu beharko lituzke oinarritzat. Horretarako, objektuaren ezaugarriak zehaztu edo objektuaren erabilera azal daiteke, esaterako:

Adib.:

*berraztertze*ko errekurtso: Administrazioarekiko auzi-bideari bukaera ematen dioten egintzen kontra aurkezten den errekurtsoa. Errekurritutako egintza eman duen organo berean jartzen da eta berak erabakitzen du.

Definizio terminologikoa terminoak izendatzen duen objektuari edo ideari erreferentzia eginez osatzen da, horregatik esaten da definizioa erreferentziala dela. Definitua ez da zehatz-mehatz terminoa, deskribatutako objektua edo ideia baizik, eta, zehatzago esateko, objektuaren edo ideia-aren adierazpen kontzeptuala. Horrela, bada, terminologiako definizioa ez da prozesu linguistiko hutsa, entitate linguistikoaren eta ez-linguistikoaren artean zubi-lana egiten duen metahizkuntzaren antzekoa baizik.

Edonola ere, terminologia-lanaren helburuaren arabera eta hartzaileen arabera, definizioko informazioa era batekoa edo bestekoa izan daiteke. Hasieratik zehaztu behar da zein informazio-mota eman nahi den, eta lan osoan zehar ildo berari jarraituko zaio.

2.- Definizioaren deskriptorea

Deskriptorea definizioa idazteko sarrera-hitza da, eta definitutako terminoa baino generikoagoa izan behar du kontzeptualki.

Adib.:

entzunaldi publiko: Edonor joan daitekeen auzitegiko ekitaldia.

Adibidean, *ekitaldi* deskriptorea kontzeptualki generikoagoa da *entzunaldi publiko* termino definitua baino.

Bestalde, generiko bakarra eta hurbilena erabiltzea komeni da. Esaterako, *txan-txangorri* terminoa definitzeko deskriptorea ez da ‘ornodun’ izango, ‘hegazti’ baizik, hurbilagoa baita.

Deskriptoreak, gehienetan, terminoaren eremu-zuhaitzeko azpisaila adierazten du. Horrela, bada, azpiero bereko terminoen definizioetan beti agertu beharko luke, ahal dela, deskriptore berak.

Deskriptoreak termino definituaren kategoria gramatikal berekoa izan behar du.

Numeroari dagokionez ere, definitutako terminoaren numero bera izan behar du deskriptoreak. Plural lexikalizatuen kasuan, esaterako, definizioko deskriptoreak ere objektu bat baino gehiago izendatzen ditu.

Adib.:
autoak (Zuzenbide prozesala) Prozesuko idazki, dokumentu eta materialen multzoa.

Terminoak eta deskriptoreak kategoria gramatikal bera izan beharra hautsi egiten da, batzuetan, izenondoan kasuan; izan ere, izenondoak maiz erlatiboazko perpaus baten bidez definitzen dira.

Adib.:
eskudun: Ahalmen juridikoa duena.

Deskriptorea, beraz, definizioaren burua da, eta inguruan biltzen ditu kontzeptuari buruzko ezaugarri espezifikokoak. Euskaraz, kontzeptuaren ezaugarri espezifikokoak bat baino gehiago direnean, definizioa idazteko ondorengo eskema erabiltzen da maiz:

1. ezaugarri espezifikoa + deskriptorea + 2. ezaugarri espezifikoa + 3. ezaugarri espezifikoa, ...

Adib.:
asfalto: Kontsistentzia likido, erdisolido edo solidoa duen materiala, kolore ilunekoa eta propietate aglomeratzaileak dituen, osagarri nagusi betun naturalak edo petrolioaren destilaziotik ateratako beste artifizialak izaten dituen.

3.- Definizioen idazkera

Oro har, terminologiako definizioak lexikografiako definizioen eredu berari jarraituz egiten dira.

Hona hemen terminoen definizioak idazteko orduan kontuan hartzekoak diren gomendioak:

a.- Definizioen konplexutasun- eta teknizismo-maila lanaren helburuaren eta har-tzaileen arabera izaten da. Bestalde, tonua inbertsonala izatea komeni da.

b.- Definizio zehatzak idatzi behar dira, gehiegi luzatu gabe. Ahal denean, esaldi bakarrekoak izaten dira, barneko punturik gabe, kontzeptu berari buruzko ezaugarri guz-tiak batera ikusi ahal izateko. Hala ere, badaude salbuespenak:

ofiziozko abokatu: Elkargoaren bidez izendatutako letradua. Askotan, doako defentsa onartzen zaion prozesuko alderdiaren letradua.

c.- Definizioa testu korrituan termino definitua bera ordezteko modukoa izan da-dila komeni da; izan ere, bai definizioa eta bai terminoa kontzeptu beraren adierazpide dira, eta zenbait testuingurutan ondo etor daiteke bata zein bestea erabiltzea.

d.- Aurretik definituta dagoen kontzepturen bati erreferentzia egin nahi bazaio definizioan, termino lehenetsia erabiliko da.

e.- Ez da definizio tautologikorik egin behar. Definizioak ez dira terminoa osatzen duten hitzak errepikatuz osatu behar; izan ere, gisa horretako definizioak terminoen azalpen besterik ez dira, ez kontzeptuen deskribapen.

Esaterako:
akusazio-idazki: Akusazioa jasotzen duen idazkia.

Horrek ez du esan nahi terminoaren osagaiak ezin direla definizioan agertu: terminoaren erroa batzuetan terminoaren generikoa izaten da, eta, deskriptorea denez, definizioaren oinarri izaten da.

Adib.:
Auzitegi Gorena: Erakunde judizialaren gailurrean dagoen eta Estatu osoan jurisdikzioa duen auzitegia.

f.- Terminologiako definizioek ez dute inoiz mota hauetako esamoldeekin hasi behar: ‘Termino bat da, izendatzen duena...’, ‘Izen hau erabiltzen da...’, ‘Adjektibo honek ...’. Esan bezala, deskriptorea da definizioaren oinarria, eta kontzeptuaren gainerako informazioa deskriptorearen gainean antolatu behar da.

g.- Ez da aipatu behar kontzeptuaren eremua, terminoak erabileremu horretan adiera berezia duela ezagutzera emateko; izan ere, terminologia-lanak beti dira espezializazio-eremu jakinekoak.

h.- Definizioan ez da sinonimia-erlaziorik aipatu behar, sinonimoak kontzeptu beraren izendapen ezberdinak besterik ez baitira. Horrela, bada, honelakoak ekidin behar dira:

jardun judizialak: Epaille eta magistratuek auzi batean egiten dituzten egintzak. *Epaille-jardunak* ere esaten da.

Horren ordean, hobe hau:

jardun judizialak: Epaille eta magistratuek auzi batean egiten dituzten egintzak.
 Sin. *epaille-jardunak*

i.- Definizioaren bidez, kontzeptua dena deskribatu behar da; ez kontzeptua ez dena. Ondorengo terminoa deskribatzeko, lehen definizioa, esaterako, ez litzateke egokia izango:

zuhaitz hostoerorkor: Hostoiraunkorra ez den zuhaitza. (definizio okerra).
 Urte-sasoi kaltegarrian hostoak galtzen dituen zuhaitza. (definizio zuzena).

4.- Definizioari buruzko bestelako inguruabarrak

Definizio terminologiko gehienak arloko adituen laguntzarekin idatziak izaten dira; izan ere, terminologoak askotan ez du eremua ezagutzen behar bezalako definizioak idatzi ahal izateko moduan. Terminologian, adituen laguntza ezinbestekoa izaten da ia beti. Era berean, definizioak dokumentu idatzietatik hartuz gero, iturria fidagarria dela egiaztatzea komeni da. Definizioa berridatzi behar bada, kontuz ibili behar da kontzeptuaren adiera ez aldatzeko.

Fitxa terminologikoan, definizioaren aldamenen, definizioa atera deneko dokumentuaren iturria zehaztu behar da. Definizioa adituen batek egindakoa bada, orduan adituaren erreferentzia izango da iturria.

J) Baliokidetza: beste hizkuntzak

Terminologia-lanetan, gehienetan hizkuntza bat baino gehiago lantzen da. Aurreko atal batean adierazi bezala, euskarazko terminologia-lanak, normalean, aztergai den arloan normalizazio-maila handiena duen erdararen bateko oinarritzko nomenklaturatik abiatzen dira; horrelakoetan, hortaz, euskara ez ezik, beste hizkuntzaren bat ere jorratzen da. Kontzeptu bera izendatzen duten hizkuntza desberdinetako terminoei baliokide deitzen zaie terminologian.

Baliokideak aurkitzeko orduan, ona izaten da definizioak edo irudiak dituzten hiztegi eleaniztunak erabiltzea, eta ez hainbat hizkuntzatako zerrenda hutseko lexikoak. Izan ere, hizkuntza bateko eta besteko terminoak baliokideak direla segurtatzeko, komenigarria da bi hizkuntzetan jasotako testuinguruak eta definizioak kontuan hartzea. Definizioari eta kontzeptuari buruzko beste datu batzuei esker sasi-adiskideak ekidin daitezke, besteak beste.

Baliokideak lantzeko gomendagarria da, era berean, nazioarteko erakunderen baten normalizatutako testu eleaniztunak baliatzea.

Baliokideak zehazteko, hizkuntza bakoitzeko terminoen adiera hartu behar da kontuan, eta ‘terminologia egitea ez da itzultzea’ dioen printzipioa errespetatu behar da. Dena den, bi hizkuntzetako terminoen artean erabateko baliokidetza aurkitzea ez da posible izaten batzuetan: hizkuntza bakoitzeko hustuketa desberdin egin delako, hizkuntza batean bestean baino informazio gehiago dagoelako, edo hizkuntza batek kontzeptu hori izendatzeko terminorik ez duelako.

Baliokideek sarrera-terminoaren kategoria gramatikal berekoak izan behar dute.

ISOrekin bat, gomendatzen da hizkuntza baliokideak ahaidetasun-harremanen arabera antolatzea eta honako hurrenkera hau jarraitzea: gaztelania, frantsesa, italiera, ingelesa eta alemana. Salbuespena egin daiteke eremu jakina dela-eta beste hurrenkeraren bat ezartzea komeni denean.

Bestalde, ISO 639: 1988 arauak sinbolo hauek ezarri ditu hizkuntza bakoitza izendatzeko:

eu	euskara
es	gaztelania
fr	frantsesa
it	italiera
en	ingelesa
de	alemana
ca	katalana
la	latina

Baliokideak kontzeptu bera izendatzeko hizkuntza desberdinetako terminoak diren aldetik, fitxa terminologikoan terminoei buruzko informazioa ematen duten datu guztiak zehatz daitezke aldamenean: termino-tipoa, oharra, erabilera geografikoa, informazio gramatikala, iturria, ponderazioa eta testuingurua.

3.3.3. Terminologia-trukea MARTIF formatuaren bidez

Kalitate oneko terminologia sortzeko denbora eta diru asko behar dira, eta, ondorioz, oso garrantzitsua eta interesgarria da terminologia trukatu ahal izatea eta, horretarako, formatu elektronikoa erabiltzea.

Arazoa da datu-base terminologikoen egitura asko aldatzen dela sistema batetik bestera, eta, hortaz, oso zaila egiten dela sistema ezberdinen artean terminologia-datuak trukatzeko. Lehen, arazoari aurre egiteko, datuak inportatzeko eta esportatzeko bihurtze-programak sortzen zituen bakoitzak bere aldetik. Gaur egun, ostera, software-aplikazio biren artean informazio terminologikoa eskualdatu ahal izateko, MARTIF formatua baliu daiteke.

MARTIF formatua (Machine-Readable Terminology Interchange Format) ISO 12200:1999 arauaren bidez sortu zen, terminologia-datuen trukatzeko unibertsalagoa, errazagoa eta merkeagoa izan zedin. MARTIF formatua SGML hizkuntzan (ISO 8879, Standard Generalized Markup Language) oinarritua dago eta terminologia-datuak elektronikoki trukatu ahal izateko erabili beharreko formulismoa eta sistema zehazten ditu. Datu-base terminologikoak lantzeko sistema ezberdinen artean terminologia-datuak trukatzeko formatu malgu eskaintzen du.

ISO 12620 arauan ezarritako fitxa terminologikoetako datuak ISO 12200 arauak sortutako MARTIF formatuan islatuta daude, SGML markatzeko lengoaiaren bidez.

Hona hemen MARTIF fitxa baten adibidea:

```

<termEntry>
  <descripGrp>
    <descrip type='subjectField'> Informatika | Softwarea eta programazioa | Sistema eragi-
    lea</descrip>
  </descripGrp>

  <adminGrp>
    <admin type='responsibility'> BA43 </admin>
  </adminGrp>

  <ntig lang=eu>
    <termGrp>
      <term> denbora errealeko sistema eragile </terminoa>
      <termNote type='pos'> iz. </termNote>
      <ptr type='sourceIdentifier' target='AB29,BA43,AC64'>
    </termGrp>

    <descripGrp>
      <descrip type='definition'> Denbora errealeko programak egin eta exekutatzea bideratzen
      duen sistema eragilea</descrip>
      <ptr type='sourceIdentifier' target='AB29'>
    </descripGrp>
  </ntig>

  <ntig lang=fr>
    <termGrp>
      <term>système de fonctionnement en temps réel</term>
      <termNote type='pos'> n </termNote>
      <termNote type='gender'> m </termNote>
      <ptr type='sourceIdentifier' target='KE83'>
    </termGrp>
  </ntig>

  <ntig lang=en>
    <termGrp>
      <term>real time operating system</term>
      <ptr type='sourceIdentifier' target='KE87/KE83'>
      <term>RTOS</term>
      <ptr type='sourceIdentifier' target='KE87'>
    </termGrp>
  </ntig>
</termEntry>

```

<termEntry> etiketarekin identifikatzen da fitxa terminologiko bakoitza. Esanahiari buruzko informazioa <descripGrp> etiketarekin adierazten da, eta bi eratakoa izan daiteke: gaiaren sailkapena edo definizioa. Informazioa hizkuntzaka eskaintzen da (<ntig>). Ez dago mugarik luzeraren aldetik eta eremuak errepikatu egin daitezke.

3.4. Adituekin harremanak. Normalizazioa

3.4.1. Adituekin harremanak

Eskuliburu honetako bigarren puntuan azaldu bezala, terminologia-lana prestatzeko urratsean, terminologia hura erabiliko dutenekin harremanetan jartzea komeni da.

Era berean, interesgarria da ikerketa osoan zehar adituekin harremanetan jarraitzea, terminoen erabilerari zein egokitasunari buruzko edo sailkapenei buruzko zalantzak galdetu ahal izateko, besteak beste. Bestalde, fitxa terminologikoak prest izandakoan ere adituek berrikustea komeni izaten da.

3.4.2. Terminologia-lanen normalizazioa

Terminologia-lanen normalizazioa aditu-batzorde batek fitxa terminologikoetan landutako terminoak berrikustean datza. Terminologia-lana osoa, zientifikoki eta linguistikoki kalitatezkoa eta beharren arabera dela egiaztatzen dute normalizazio-batzordeek.

Normalizazio-lana termino guztiak landuta daudenean egitea gomendatzen da; izan ere, ez da egokia terminologia-eremu jakinako azpiero bat bakarria normalizatzeko. Hobe da eremua osotasunean aztertzea. Horrela, bada, normalizazio-taldea osatzen duten adituei fitxa terminologikoen behin-behineko zerrenda osoa bidaltzen zaie, oharrak, iradokizunak, eta zuzenketak egin ditzaten.

2002ko uztailaren 16koa, Euskararen Terminologia Batzordea (179/2002 DEKRETUA, uztailaren 16koa, Euskararen Aholku Batzordearen antolamendu eta funtzionamenduaren araudia aldatzeko eta bateratzeko zen Dekretuaren aldaketa egiten duena.)

Ondorengoak dira Batzordean parte hartzen duten erakundeak: Hizkuntza Politika, Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Euskara Zerbitzua, Euskaltzaindia, UZEI, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institutua. Eta gehienez ere beste 6 bokal, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak izendatuak terminologian eta euskararen aditu direnen artetik. Izendapen honetarako euskararen hizkuntza-komunitatearen lurraldeetako ordezkariak izateari ere begiratuko zaio. Lantzen den terminologia eremu jakinaren arabera, beste aditu batzuk ere izenda ditzake Hizkuntza Politikarako sailburuordeak, batzordeko kideen lanaren lagungarri. Lana amaitu arteko izendapena izango dute kide hauek.

Hauek izango dira Batzordearen egitekoak:

- Terminologi alorrean dauden lehentasunak finkatzea.
- Lan-proposamenak egitea eta urteko jarduera-planetan jasotzea.
- Terminologi lanerako irizpideak ematea.
- Termino bat baino gehiago dagoenean termino hobetsia proposatzea.
- Landutako terminologi lanei onespina ematea.
- Finkatutako terminologia zabaltzeko bideak proposatzea eta terminologia zabaltzea.
- Onetsitako terminologiaren erabilera gomendatzea.

4. TERMINO-SORKUNTZA EDO NEOLOGIA

4.1. Neologia: definizioa eta tipologia

Neologismo guztiek ez dute arazorik sortzen. Hizkuntzako morfologia-baliabideak behar bezala aplikatuta sortutako hitz berriek ez dute normalean eragozpenik izaten. Arazorik handienak sortzen dituztenak maileguak dira. Jarraian azaltzen da, labur-labur, euskarazko terminoen sorkuntza zertan datzan eta zein arazo sortzen dituen.

Euskarazko terminologia-lanetan sarri gertatzen da kontzepturen bat izendatzeko euskal ordainik ez egotea. Horrelakoetan, termino-sorkuntzara edo neologiara jo behar izaten da. Neologia unitate lexiko berriak sortzeko prozesua da.

Sortu berri den unitate lexikoari, lehendik zegoen termino baten esanahi berriari, edo beste hizkuntza-sistema batetik maileguan hartu berri den terminoari deitzen zaio neologismoa. Definizio horretatik atera daiteke neologismoaren tipologia orokorra, eta, horren arabera, hiru multzotan bana daitezke unitate lexiko berriak sortzeko baliabideak. Hona hemen zertan datzan neologismo-mota bakoitza:

4.1.1. Formazko neologismoak

Formazko neologiaren bidez, euskararen sistema morfologikoko elementuak konbinatuz (edo euskararen eta antzinako nahiz gaur egungo hizkuntzen elementuak konbinatuz) sortzen dira unitate lexiko berriak.

Formazko baliabideen artean, hauek bereiz ditzakegu:

- *Eratorketa*: autonomia lexikal osoa duen erro edo oinarri lexikal bati autonomia lexikalik gabeko hizkiren bat erantsiz hitz berria sortzea. Hizki horiek euskaraz atzizkiak izaten dira gehienetan (*luzagarri*, *transformatzaile*), baina aurrizkiak ere erabiltzen dira eratorpenaren bidez unitate lexikal berriak sortzeko (*desegite*, *meta-hizkuntza*).
- *Hitz-elkarketa*: baliabide honen bidez, termino berria unitate lexikal autonomoak elkartzuz sortzen da. Euskarazko hitz berriak sortzeko baliabide oparoa da. Hitz-elkarketa hainbat motatakoa izan daiteke, elkartzen diren unitateen elkarren arteko harremanaren eta kategoriaren arabera. Hona hemen adibide batzuk: mendekotasunezko izen-konposizioa (*notario-akta*, *zenbaki-sistema*), konposizio kopulatiboa (*seme-alabak*, *zuri-gorri*), ‘aditz-erroa+izena’ konposizioa (*idazmakina*, *ziurtagiri*). Aposizioa ere hitz-elkarketa modu bat da (*C bitamina*).
- *Sintagmazioa*: hitzak sintaktikoki konbinatuz sortzen da termino berria. Konbinazio sintaktikoa hizkuntza bakoitzeko arauari jarraituz egiten da. Terminologian ugariak dira sintagmazio bidez sortutako terminoak: *gari-jotzeko makina*, *balio erantsiaren gaineko zerga*, *ondasun higigarria*.
- *Laburtzapena*: hitzak edo esamoldeak trinkotuz zein laburtuz edo elementuak kenduz sortzen dira termino berriak. Laburtzapenaren barruan, akronimoak (*radar*), siglak (*ADN*), laburdurak (*iz.*) eta sinboloak (*kg*) bereiz daitezke.

4.1.2. Esanahizko neologismoak

Esanahizko neologiaren bidez, lehendik badiren unitate linguistikoaren esanahia moldatuz sortzen dira termino berriak. Espezializazioko hizkeretan, normala izaten da lexiko orokorreko hitzen jatorrizko esanahia apur bat moldatzea, arlo bereziko terminoak sortzeko. Unitate linguistikoaren jatorrizko esanahia hainbat eratarira molda daiteke:

- *Zabalkuntza semantikoa*: hitz batek lexiko orokorreko hiztegi batean duen esanahian oinarrituta, eta hedapenez, hitz hori antzeko kontzeptu bat izendatzeko erabiltzea. Esate baterako, *sare* hitzak ‘hariak edo kidekoak gurutzatuz eta elkarri lasaiki lotuz egiten den ehuna’ esan nahi du, Ibon Sarasolaren *Euskal Hiztegia*-ren arabera. Gaur egun, berriz, hitzaren jatorrizko esanahia hedatuz, Informatikako *network* izendatzeko ere erabiltzen da; honela definitzen da, esaterako, UZEIren *Informatika eta Internet Hiztegia*-n: ‘komunikazio-kanalen bidez elkarri konektatutako puntu-multzoa’.
- *Mugapen semantikoa*: lexiko orokorrean esanahi orokorra duen hitzari esanahia murrizten zaio, eremu espezifikoa esanahi zehatza esleituz. Adib.: *ebatsi* (Zuzenbidean). Lexiko orokorrean *ebatsi* hitzak ‘ostu, ezkutuan lapurtu’ esan nahi du, inolako bereizkuntzarik gabe. Zigor Zuzenbidean, ostera, esanahi mugatua du: ‘norbaitek, irabaziak lortzeko asmoz, beste baten gauza higigarriak hartzea, jabearen borondatearik gabe’.
- *Kategoria-aldaketa*: jadanik existitzen den unitate linguistikoaren kategoria gramatikala aldatuz ere sor daitezke termino berriak. Adib.: euskarazko *errekeritu* aditzetik *errekeritu* izena sortzea.
- *Berrezarpen lexikala*: Baztertuta geratu diren hitz zaharrei erabilera berria ematea. Adibidez, *maula* edo *oreka* hitzekin gertatu dena.

4.1.3. Maileguzko neologismoak

A) Maileguak zentzu hertsian

Maileguzko neologiaren bidez, hizkuntza batek beste hizkuntza bateko elementu lexikalak hartu eta, behar diren egokitzapenezko hots- eta idazkera-aldaketak egin ondoren, bere altxor lexikalean baitaratzen ditu.

Euskal hitzen altxorrean kontzeptu jakin bat izendatzeko termino egokirik aurkitzen ez denean, ezinbestekoa da, batzuetan, erdararen bateko mailegua hartzera jotzea, perifrasiatar jo nahi ez bada behintzat.

Zuzeneko maileguak bi multzotan bana daitezke:

- Mailegu irentsiak edo egokituak: mailegua hartzen duen hizkuntzako arau fonetiko eta morfologikoetara egokitutakoak. Adib.: *enbargo*, *asentamendu*, *denbora*.
- Irentsi gabeko maileguak: hizkuntza hartzailean aldaketa ortografikorik egin gabe sartzen diren maileguak. Adib.: *campus*, *corpus*, *vedette*, *camping*. Hauek asko ingelesetik hartutako mailegu berriak dira, besteak beste, *set*, *play-off*, *web*, *software*.

Maileguak hartzeko orduan, garrantzitsua da mailegu bidez izendatu nahi den kontzeptua gainerako hizkuntzetan nola adierazten den aztertzea. Izan ere, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez, esaterako, erro edo forma bereko terminoa erabiltzen bada kontzeptu bera izendatzeko, ez da eragozpenik izaten euskaraz ere maileguan hartzeko, euskarazko beste ordainik ez dagoenean. Gisa horretakoak dira, esate baterako, *alkohol* (es *alcohol*, fr *alcool*, en *alcohol*), eta *elektronika* (es *electrónica*, fr *électronique*, en *electronics*).

Euskaltzaindiak 1991ko apirilaren 26an gutxieneko baldintza ezarri zuen maileguen gainean. Honela adierazi zuen, hitzez hitz, *Euskaltzaindiaren bigarren agiria euskal hitzei buruz* gomendioan: “[...] Ez eta ez dira erabat euskal hitzak gaztelera edo frantsesa jakin gabe euskaldun batek ezin adi ditzakeenak, non baitirudi zenbait euskal telekomunikabidetako zenbait programa aditzeko bortxatzen ditugula Iparraldeko euskaldunak lehenik gaztelera ikastera eta Hegoaldekoak frantsesa.” Hortaz, ezin dira maileguan hartu Iparraldeko euskaldunak gaztelania jakin gabe ezin uler ditzakeen gaztelaniazko hitzak, ezta Hegoaldeko euskaldunak frantsesa jakin gabe ulertzen ez dituen frantseseko hitzak ere. Dena dela, batasunerako forma egokirik ez dagoenean, onartzen da Hegoalderako forma bat erabiltzea eta Iparralderako beste bat; adibidez, *gasolina* (Heg.) - *ezantza* (Ipar.).

B) Itzulpen bidezko maileguak: kalkoak

Maileguen artean aipatzekoak dira, era berean, kalkoak. Kalkoak mailegu bereziak dira: hizkuntza batek beste hizkuntza bateko hitza edo esamoldea itzuliz sortzen dituen unitate linguistikoak dira. Gisa honetakoak dira, esaterako, *segurtasun-indarrak*, *argi berdea eman*, *gastuak estali*, etab. Azken urteotan nagusitzen ari den baliabidea da, eta terminoak sortzeko baliabide egokia izan daiteke, baldin eta zuhur eta zuzen jokatzeko bada.

4.2. Neologismoak onartzeko eta aukeratzeko irizpideak

Termino berriak sortzeko orduan, lagungarriak izan daitezke irizpide linguistiko, terminologiko, soziolinguistiko edo pragmalinguistikoak:

- Pluribalentzia eta sinonimia saihestea komeni da. Termino berria sortu baino lehen, kontzeptu hori izendatzeko dagoeneko terminorik ote dagoen ziurtatu beharra dago. Izan ere, terminologia normalizatuan, kontzeptu bakoitzeko termino bat egotea da egokiena.
- Nahitaezko arrazoirik ez badago, ez da komeni finkatuta dauden eta erabilera hedatua duten izendapenak aldatzea, nahiz eta osaera aldetik oinarri sendoegirik ez izan.
- Termino berria gardena izatea komeni da; izendapenetik kontzeptuaren esanahia erraz jaria daitekeenean esaten da terminoa gardena dela.
- Sintaktikoki, eraikuntza ezberdinen osagai izateko modukoa izan beharko luke termino berriak.
- Eratorriak sortzeko modukoa den terminoa aukeratzeko komeni da; adibidez: *telefono*, *telefonía*, *telefoniko*. Behar izanez gero familiak osatzeko modukoak ez diren neologismoak ekidin behar dira: *urrutzikin*, esate baterako.

- Edozein arlotako terminologiak kontzeptu-sistemarekin bat datorren terminologia-sistema koherentea izan behar du. Horrela, bada, bai existitzen diren terminoek eta bai termino berriek ere lotura eta koherentzia izan behar dute kontzeptu-sistemaren baitan. Ondorioz, familia bereko terminoak sortzeko moduan sistematikotasuna gordetzea komeni da; esaterako: *diodo*, *triodo*, *tetrodo*.
- Termino berriak zuzena izan behar du hizkuntza aldetik. Hizkuntza jakineko arau morfologikoak, morfosintaktikoak eta fonologikoak bete behar ditu.
- Ahalik eta terminorik neutroena aukeratu behar da. Konnotazio negatiboko terminoak ekidin behar dira.
- Terminoak laburrak izan daitezela komeni da. Termino luzeegiek ekonomia linguistikoko printzipioa hausten dute. Dena den, laburtasunaren eta zehaztasunaren arteko oreka aurkitu behar da, elkarren aurkakoak izan baitaitezke: terminoak zenbat eta ezaugarri gehiago izan –eta, beraz, zenbat eta luzeagoa izan–, orduan eta zehatzagoa eta gardenagoa izaten da. Hortaz, praktikan kasuan kasuko erabakia hartu beharko da, beharren arabera.

5. TERMINOLOGIA-LANAREN ARGITALPENA

5.1. Argitalpen-motak

Liburuak ziren, duela urte gutxi, terminologiako hiztegiak argitaratzeko bide bakarra. Gerora, beste euskarri batzuk azaldu dira. Hona hemen oinarritzkoenak:

- Testu-fitxategiak disketean edo CD-ROMean: liburuek baino leku gutxiago okupatzen dute eta testu-bilaketarako aukera gehiago ematen dituzte.
- Datu-baseak disketean edo CD-ROMean, bilaketa-motorrez hornituta: bilaketa-aukera sofistikatuagoak eskaintzen dira. Adibidez, hitz bat edo gehiago dituzten terminoak aurki daitezke. Baina aplikazioak direnez, sistema eragileei egokituak izan behar dute. Gainera, askotan instalatu egin behar izaten dira.
- Hiztegiak Interneten: aurrekoetan esandako abantailez gain, eguneratzeko erraztasuna da garrantzitsua.
- Terminologia-bankuak: hiztegi-bilduma handiak izaten dira eta gehienetan Internetez eskaintzen dira.

Hurrengo lerrootan, terminologia-lana paperezko euskarrian argitaratzeko moduen berri ematen da.

5.2. Paperezko euskarria

Terminologia-lanen liburuko argitalpena, oro har, hiru ataletan bana daiteke:

- *Atarikoak*: hitzaurrea, sarrera, laburduren esanahia, liburua erabiltzeko modua, normalizazio-batzordea, eremu-zuhaitza, bibliografia.

- *Lehen atala*. Artikulu osoak, alfabetikoki edo sistematikoki ordenatuak.
- *Bigarren atala*. Aurkibideak: indizeak eta erdara-euskara lexikoak.

5.2.1. Atarikoak

- *Hitzaurrea*: aurkezpen-modukoa da, lana testuinguru eta inguruabar jakinetan kokatzen duena. Aukerazko atala da, eta lanaren eremuan garrantzia duen erakunderen bateko ordezkariak idatzia izaten da normalean. Hitzaurrea idazten duenaren izena eta data jartzen dira amaieran.

- *Sarrera*: lana egiteko helburuak eta modua, eta lanaren edukia bera ematen da ezagutzera sarreran. Era berean, nori zuzendua dagoen ere azaltzen da. Terminologia-lanaren egileak idatzia izaten da.

- *Hiztegia nola erabili*: hiztegiaren bi atal nagusien oinarritzko egituraren berri ematen da, nola erabili behar den jakiteko.

- *Lan-taldea edo normalizazio-batzordea*: terminologia-lanean parte hartu duen lan-taldeko edo normalizazio-batzordeko kideen izen-abizenak eta bakoitzak ordezkatzeko duen erakundearen izena ematen dira.

- *Laburdurak*: lanean erabilitako laburdura guztiek esan nahi dutena azaltzen da.

- *Eremu-zuhaitza*: terminologia-lanaren oinarri izan den kontzeptu-sistemaren berri ematen da.

- *Bibliografia*: erreferentzia bibliografikoak ematen dira, irakurleak lanaren oinarria zein den jakin dezan.

5.2.2. Lehen atala: artikulak

Lanaren atal nagusia da, landutako kontzeptuen informazioa erakusten baita artikuluetan.

Artikuluetan ez dira fitxa terminologikoetan landutako datu guztiak jasotzen: terminoen, baliokideen eta definizioen iturriak, esaterako, kendu egiten dira askotan. Definizioak gehienetan agertzen dira. Dena den, artikuluetako osagaiak aukeratzeko orduan, lanaren helburua eta hartzaileak zeintzuk diren kontuan hartu behar da, besteak beste; adibidez, hartzaileak adituak badira, kontzeptu asko oso ezagunak izango dira beraien-tzat, eta, hortaz, ez da kontzeptu guztien definizioa eman beharko, gehien interesatuko zaiena euskarazko ordaina izango da eta. Horrela, bada, kasuan-kasuan aukeratzen dira artikuluetan azaldu nahi diren datuak.

A) Artikuluen egitura

Hau izan daiteke artikuluen oinarritzko egitura: euskarazko sarrera (letra lodian, nabarmenduta ikus dadin), gaiaren sailkapena (letra etzanean), definizioa eta erdarak (ISO laburduren bidez identifikatuak). Oharrak egonez gero, sarrera bakoitzaren aldamenean zehatz daitezke, parentesi artean. Euskarazko sinonimoak sarreraren ondoren jar daitezke, ‘Sin.’ laburdurarekin. Erdara bakoitzeko sinonimoak, berriz, dagokion sarreraren aldamenean txerta daitezke, puntu eta komaren bidez banatuta.

Adib.:

<p>ROM memoria Sin.: memoria hil <i>Unitate zentralako hardwarea.</i> Gordeta daukan informazioa irakurtzen bakarrik uzten duen memoria, erabilera normalean edukia aldatu ezin zaiona. Fabrikatzen den momentuan idazten zaio informazioa. es memoria ROM; memoria muerta; memoria de sólo lectura fr MEM; mémoire morte en ROM; read-only memory</p>
--

B) Artikuluak ordenatzeko moduak

Terminologia-laneko artikuluak alfabetikoki edo sistematikoki ordena daitezke, helburuaren eta erabiltzaileen beharren arabera.

1.- Ordenatze sistematikoa

Aurretik azaldu bezala, terminologia-lana egiteko, arloko kontzeptuen ikerketa sistematikoa egiten da. Horrela, bada, lana sistematikoki egituratuta dagoenez, interesgarria izan daiteke artikuluak sistematikoki ordenatuta argitaratzea, hau da, lanerako erabilitako kontzeptu-sisteman oinarritutako argitalpena egitea.

Dena den, nahiz eta artikuluak sistematikoki ordenatu, aurkibide alfabetikoa ere eskaini behar izaten da bilaketak erraz egiteko.

Sistematikoki ordenatutako artikuluei zenbakia jartzen zaie, eremukako eta azpie-remukako sailkapenaren arabera; ondoren, aurkibide alfabetikoan, sarrerari aldamenean dagokion zenbakia jartzen zaio, artikulua zenbaki horren arabera aurkitu ahal izateko.

Adib.:

10000	OROGRAFIA
10100	Lur-goraguneak
10101	<i>mendigune</i>
10102	<i>goi-lautada</i>
10103	<i>mendikate</i>
10104	<i>mendilerro</i>
10105	<i>gailur-lerro</i>
10106	<i>mendi</i>
10107	<i>muino</i>
10108	<i>bizkar</i>
10109	<i>mendi-adar</i>
10110	<i>ezproi</i>
10111	<i>haitz</i>
10112	<i>tontor</i>
10113	<i>haitz-punta</i>
10114	<i>irtengune</i>

Adibide honetan Orografiako kontzeptuen sistema erakusten da. Sistematikoki ordenatutako artikuluak ordena horretan azalduko dira, hau da, kontzeptu-sistemako hurrenkera berean. Gero, aurkibide alfabetikoan, *haitz-punta* bilatu nahi bada, esaterako, 'h' letran *haitz-punta 10113* agertuko da, eta, kontzeptu-sisteman oinarrituta, artikulua bere tokian aurkitu ahal izango da.

2.- Ordenatze alfabetikoa

Ordenatze alfabetikoa oso ezaguna da lexikografian eta terminologian, hitzak eta terminoak kontsultatzeko bide erraza eta azkarra eskaintzen baitu. Terminologia-lanetan artikulua alfabetikoki ordenatzen direnean, euskarazko sarrera da kontuan hartzen dena. Ordenatze-modu honen arazoa da, alfabetikoki ordenatutako artikulua banaka-banaka besterik ezin daitezkeela kontsultatu, normalean ez baitute beraien artean lotura logiko edo semantikorik izaten. Eragozpen horri aurre egiteko, erabilera-eremu zehatza eta erreferentzia analogikoak eta sinonimikoak sar daitezke artikuluetan.

Ordena alfabetikoa jarraitua edo etenduna izan daiteke.

a) Ordena jarraitua

Artikuluak alfabetikoki ordenatzen dira, unitate konposatuetako zuriuneak edo karaktere ez-alfabetikoak (marratxoak, apostrofoak, ...) kontuan hartu gabe. Horrek arazoak sortzen ditu, termino-multzoak apurtu egiten baitira eta terminologia-lanetan hain ugariak diren hitz elkartuak banatuta agertzen baitira.

b) Ordena etenduna

Ordena alfabetiko jarraituaren arazoak ekiditeko, ordenatze-modu etenduna erabil daiteke. Ordenatze-modu honetan, zuriuneek lehentasuna dute karaktere ez-alfabetikoen aurrean, eta karaktere ez-alfabetikoen, era berean, lehentasuna dute karaktere alfabetikoen aurrean. Horrela, bada, familia bereko hitz elkartuak elkarrekin agertzen dira.

Hona hemen bi sistemen arteko aldea erakusten duen adibidea (*Lan Harremanen Hiztegi*ko hitz-zerrenda):

<i>Ordena jarraitua:</i>	<i>Ordena etenduna:</i>
lan	lan
lan-administrazio	lan arriskutsu
lanaldi	lan berria aurkitzeko baimen
lan arriskutsu	lan egiteko obligazio
lan-baldintzak	lan intelektual
lan berria aurkitzeko baimen	lan nekagarri
lanbide	lan toxiko
lan egiteko obligazio	lan-administrazio
lanegun	lan-baldintzak
lan-indar	lan-indar
lan intelektual	lan-kontratu
lan-kontratu	lan-ordutegi
lan nekagarri	lan-txanda
lanordu	lanaldi
lan-ordutegi	lanbide
lantalde	lanegun
lan toxiko	lanordu
lan-txanda	lantalde

Euskaraz hitz-elkarketa baliabide oparoa eta erabilia izanik, euskarazko terminologia-lanetan egokiagozat jotzen da ordena alfabetiko etenduna erabiltzea. Horrez gain, mugatuaren edo –a itsatsiaren inguruan, arau hauek kontuan hartzea gomendatzen da:

- Hitzak bakarrik doanean eta artikulua daramanean, bai singularra bai plurala, artikulurik gabe izango lukeen toki berdina izango du.
- Hitzak -a organikoa duenean eta bakarrik doanean, -a ez balu bezala ordenatuko da.

Artikuluak ordenatzeko sistema alfabetikoa aukeratzen bada, artikuluak beste hizkuntzetatik abiatuta aurkitu ahal izateko aurkibideak eskaintzen dira lanaren bigarren atalean.

5.2.3. Bigarren atala: aurkibideak

A) Erdara-euskara lexikoak

Terminologia-lanaren bigarren atalean, landu diren erdaretako aurkibide bana agertzen da, alfabetikoki ordenatuta. Erdarazko sarrera bakoitzaren aldamenean, euskarazko ordaina zehazten da, erdarazko terminoa kontsultatu duenak euskaraz nola esaten den jakin dezan, eta, nahi izanez gero, dagokion artikulura jo ahal izan dezan informazio guztia kontsultatzerara.

Mota honetakoak dira UZEIn egiten diren hiztegi gehienetako aurkibideak.

Euskara-erdara lexikoetan, erdal sarrera sinonimodunak multzo oso bezala eskaintzen dira normalean, sarrera izatea tokatzen zaiona lodian eta bestea(k) erregularrean, haren azpian. Hala ere, kontzeptu berari dagozkion konbinazioei elkarrengandik hurbil egotea tokatu zaienean, bat ezaba daiteke:

Adib.:

current state current status	uneko egoera
current status current state	uneko egoera
cursor	kurtsore
cybercafe cybercoffee	ziberkafetegi
cybercoffee eybercafe	ziberkafetegi
cybercop	ziberpolizia

B) Hizkuntzen indizeak

Artikuluak alfabetikoki ordenatuak emateaz gain, zenbakitu egin daitezke. Horrelakoetan, liburuaren atzean eransten diren erdarazko indizeetan, erdarazko terminoaren aldamenean dagokion artikuluen zenbakia jar daiteke, erdarazko terminoa kontsultatu duenak artikulua osora jo ahal izan dezan. Horrelakoak dira, esaterako, Termcat Kataluniako terminologia-zentroak argitaratutako hiztegiak.

Bestalde, artikuluak sistematikoki ordenatuak badaude, hizkuntza guztietako indizea eman daiteke (euskarazkoa eta landutako erdaretakoa), eta hizkuntza bakoitzeko

terminoaren aldamenean eremu-zuhaitzarekin bat datorren zenbakia jarri, zenbaki hori sistematikoki ordenatutako artikuluen artean bila dadin. Horren adibide, *Biologia I. Izendegia*.

6. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- AGIRRE, J. "Hizkera argia", in: *Berba*. 19 zk. 1996.
- "Hitz-sorkuntzako uste ustelak (I)", in: *Administrazioa Euskaraz*. 27 zk. 2000.
 - "Hitz-sorkuntzako uste ustelak (II)", in: *Administrazioa Euskaraz*. 28 zk. 2000.
 - "Hitz-sorkuntzako uste ustelak (III)", in: *Administrazioa Euskaraz*. 29 zk. 2000.
- ALBERDI, J.; GARCIA, J.; UGARTEBURU, I. "Erdal hitz bakarra: euskal hitz bakarra. Jokamolde mimetikoa euskal terminologian", in: *Nazioarteko Terminologia Biltzarra-Congreso Internacional de Terminologia-Congrès International de Terminologie-International Congress on Terminology*. Donostia: HAEE-IVAP; UZEI. 1997. 307-339 or.
- ALDEZABAL, I [et al.] "Terminologiaren erauzketa automatikoa eta bere aplikazioa euskararako", in: *Nazioarteko Terminologia Biltzarra-Congreso Internacional de Terminologia-Congrès International de Terminologie-International Congress on Terminology*. Donostia: HAEE-IVAP; UZEI. 1997. 495-508 or.
- ARNTZ, R.; PICHT, H. *Introducción a la terminología*. Madril: Fundación Germán Sánchez Ruipérez; Pirámide. 1995
- AUGER, P.; ROUSSEAU, L.-J. *Metodologia de la recerca terminològica. Cabré I Castellvi, M. T. [itz.]*. Bartzelona: Generalitat de Catalunya. 1984.
- *Metodologia de la recerca terminològica*. Bartzelona: Generalitat de Catalunya. Departament de Cultura. 1987. 2. ed.
- AZKARATE, M. "Euskal terminologiaren egoeraz", in: *Nazioarteko Terminologia Biltzarra-Congreso Internacional de Terminologia-Congrès International de Terminologie-International Congress on Terminology*. Donostia: HAEE-IVAP; UZEI. 1997. 249-272 or.
- BARRENETXEA, T. "Terminologi zentru eta bankuak", in: *Senez. Itzulpen eta terminologiazko aldizkaria*. 2. zk. 1985. 29-42 or.
- BERGENHOLTZ, H.; TARP, S. [eds.]. *Manual of specialised lexicography: the preparation of specialised dictionaries*. Amsterdam; Philadelphia: John Benjamins. 1995.
- CABRÉ, M. Teresa. *La Terminologia. La teoria, els mètodes, les aplicacions*. Bartzelona: Empúries. 1992.
- CÉLESTIN, T.; GODBOUT, G.; VACHON-L'HEUREUX, P. *Méthodologie de la recherche terminologique ponctuelle: essai de définition*. Québec: Office de la Langue Française. 1984.
- CONFÉRENCE DES SERVICES DE TRADUCTION DES ÉTATS DE L'EUROPE OCCIDENTALE. GROUPE DE TRAVAIL TERMINOLOGIE ET DOCUMENTATION. [ed.]. *Recommendations relatives à la terminologie*. Berna: Chancellerie de la Confédération Suisse. 1990.
- CONFERENCE OF TRANSLATION SERVICES OF NEW EUROPEAN STATES. WORKING PARTY ON TERMINOLOGY AND DOCUMENTATION, COTSOWES. [ed.]. *Recommendations for terminology work*. Berna: Swiss Federal Chancellery. 1990.
- DEUSTUKO UNIBERTSITATEA. EUSKARA JURIDIKOAREN MINTEGIA, "Terminologia, itzulpena eta diskurtso juridikoa: euskararen kasua", in: *Nazioarteko Terminologia Biltzarra-Congreso Internacional de Terminologia-Congrès International de Terminologie-International Congress on Terminology*. Donostia: HAEE-IVAP; UZEI. 1997. 399-413 or.
- DIAZ DE LEZANA, A. "Administrazioko terminologia eta inguruko arloekiko harremanak", in: *Administrazioko hizkera eta terminologiaz jardunaldiak*. Oñati: HAEE-IVAP. 1989. 153-164 or.
- "Terminologi hustuketarako irizpideak", in: *Berba*, 8. zk. 1993.
 - "Terminologi lana: bideak zabaltzen", in: *Senez. Itzulpen eta terminologiazko aldizkaria*. 13. zk. 1992. 133-150 or.
 - "Terminologia lanaren metodologia", in: *Senez. Itzulpen eta terminologiazko aldizkaria*. 17. zk. 1996. 29-38 or.
- DUBOC, Robert. *Manuel pratique de terminologie*. Linguatex; Montréal; Paris: Conseil Int. de la Langue Française. 1978
- EGIA, G. "Arazo ez-linguistikoak administrazio arloko terminologian", in: *Administrazioko hizkera eta terminologiaz jardunaldiak*, Oñati: HAEE-IVAP. 1989. 49-62 or.

- ELOSEGI, A. "Lege-testu itzulietako euskal terminologiaren hustuketarako metodologia", in: *Nazioarteko Terminologia Biltzarra-Congreso Internacional de Terminologia-Congrès International de Terminologie-International Congress on Terminology*. Donostia: HAEE-IVAP; UZEI. 1997. 437-455 or.
- FELBER, H.; PICHT, H. *Métodos de terminografía y principios de investigación terminológica*. Instituto "Miguel de Cervantes". CSIC. Madril. 1984.
- ISO [International Organization for Standardization]. ISO 1087-1. *Terminology work - Vocabulary. Part 1: Theory and application = Travaux terminologiques. Partie 1: Théorie et application*. Geneva: ISO. 2000
- ISO 1087-2. *Terminology work - Vocabulary. Part 2: Computer applications = Travaux terminologiques. Partie 2: Applications logicielles*. Geneva: ISO. 2000
 - ISO 12199. *Alphabetic ordering of multilingual terminological and lexicographical data represented in the Latin alphabet = Mise en ordre alphabétique des données lexicographiques et terminologiques multilingues représentées dans l'alphabet latin*. Geneva: ISO. 2000
 - ISO 15188. *Project management guidelines for terminology standardization = Lignes directrices pour la gestion de projets de normalisation terminologique*. Geneva: ISO. 2001
 - ISO 1951. *Symboles lexicographiques particulièrement pour l'emploi dans les vocabulaires systématiques à définitions*. Geneva: ISO. 1973.
 - ISO 6156. *Format d'échange sur bande magnétique des données terminologiques et ou lexicographiques (MATER) = Magnetic tape exchange format for terminological, lexicographical records (MATER)*. Geneva: ISO. 1987.
 - ISO 639. *Code for the representation of names of languages = Code pour la représentation des noms de langue*. Geneva: ISO. 1988.
 - ISO 704. *Terminology work. Principles and methods = Travail terminologique. Principes et méthodes*. Geneva: ISO. 2000
 - ISO R1149. *Layout of multilingual classified vocabularies*. Geneva: ISO. 1969.
 - ISO R860. *Unification internationale des notions et des termes*. Geneva: ISO. 1968.
 - ISO R919. *Guide pour l'Élaboration des vocabulaires systématiques: Exemple de méthode*. Geneva: ISO. 1969.
 - ISO TR12618. *Computational aids in terminology. Creation and use of terminological databases and text corpora = Aides informatiques en terminologie. Création et utilisation de bases de données terminologiques et de corpus de textes*. Geneva: ISO. 1994
 - Project de Norme Internationale ISO/DIS 12615. ISO/TC 37/SC2. *Références bibliographiques et indicatifs de source pour les travaux terminologiques = Bibliographic references and sources identifiers for terminology work*, Geneva: ISO. 2002
- LIZUNDIA, J. L. "Administrazio terminologiaz eta izendegiaz", in: *Administrazioko hizkera eta terminologiaz jardunaldiak*, Oñati: HAEE-IVAP. 1989. 165-166 or.
- LOINAZ, M. "Adjektibo erreferentzialaren erabilera", in: *Berba*. 16. zk. 1995.
- "Terminologiako datu-bankuak: Euskalermen diseinua eta kudeaketa", in: *Nazioarteko Terminologia Biltzarra-Congreso Internacional de Terminologia-Congrès International de Terminologie-International Congress on Terminology*. Donostia: HAEE-IVAP; UZEI. 1997. 157-185 or.
- MENDIGUREN, X. "Euskarazko neologismo eta terminologiaren inguruan", in: *Euskera*. t. XXII. 1977. 97-100 or.
- "Terminologia eta traduktologia EHU-UPVn", in: *Senez. Itzulpen eta terminologiazko aldizkaria*. 17. zk. 1996. 17-27 or.
- MUJICA, J.A. "Nazioarteko hitzak noiz eta nola: irizpideak", in: *Berba*. 24 zk. 1997.
- NAVARRO, K. [itz.]: "Maria Teresa Cabré Castellví [elkarrizketa]", in: *Senez. Itzulpen eta terminologiazko aldizkaria*. 17. zk. 1996. 7-15 or.
- OLAIZOLA, M. "Administrazioko hiztegia: normalizazio-bidean emandako urratsa", in: *Nazioarteko Terminologia Biltzarra-Congreso Internacional de Terminologia-Congrès International de Terminologie-International Congress on Terminology*. Donostia: HAEE-IVAP; UZEI. 1997. 129-146 or.
- OREGI, E. "Administrazioko euskararen terminologia bateratzeko erizpide eta bideak", in: *Administrazioko hizkera eta terminologiaz jardunaldiak*. Oñati: HAEE-IVAP. 1989. 185-195 or.

- PAVEL, S.; NOLET, D. Leonhardt, Ch. [Itz.] *Handbook of terminology*. Terminology and standardization. Kanada: Translation Bureau. 2001.
- REY, A. *La Terminologie: noms et notions*. corr. Paris: Presses Universitaires de France. 1992. 2. ed. (Que sais-je?; 1780).
- SAGARNA, A. "Administrazioko terminologiaren sorkuntzarako bideak", in: *Administrazioko hizkera eta terminologiaz jardunaldiak*, Oñati: HAEE-IVAP. 1989. 81-88 or.
- "Hiztegi teknikoak", in: *Euskera*, t. XXXIX. 1994. 1.271-1.279 or.
- SANDRINI, P. *Terminologearbeit im Recht: Deskriptiver begriffsorientierter Ansatz vom Standpunkt des Übersetzers*. Viena: TermNet, 1996.
- SARASOLA, I. "Euskal hiztegi-gintzaren eta terminologiaren inguruan", in: *Nazioarteko Terminologia Biltzarra-Congreso Internacional de Terminologia-Congrès International de Terminologie-International Congress on Terminology*. Donostia: HAEE-IVAP; UZEI. 1997. 69-86 or.
- SCHMITZ, K.-D. "Terminology interchange using MARTIF", in: *Nazioarteko Terminologia Biltzarra-Congreso Internacional de Terminologia-Congrès International de Terminologie-International Congress on Terminology*. Donostia: HAEE-IVAP; UZEI. 1997. 147-155 or.
- SUONUUTI, H. *Guide to terminology*. Helsinki: Tekniikan Sanastokeskus. 1997.
- TERMCAT. Centre de Terminologia. *Metodologia del treball terminològic*. Bartzelona: Generalitat de Catalunya. Departament de Cultura. 1990.
- URRUTIA, A. "Administrazioko euskararen hizkera-mailak eta terminologi arazoak", in: *Administrazioko hizkera eta terminologiaz jardunaldiak*. Oñati: HAEE-IVAP. 1989. 17-24 or.
- "Euskarazko hizkera juridikoaren ezbaian", in: *Berba*. 27 zk. 1998.
- UZEI: *Arrantza Hiztegia*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. 1998.
- *Ekonomia eta Finantzak Hiztegia*. Donostia: UZEI. 1998.
- *Informatika eta Internet Hiztegia*. Donostia: Elkar. 2001.
- *Laburtzapenen. Siglak. Ikurrak. Laburdurak. Erizpideak eta zerrendak*. Donostia: Elkar. 1988
- *Lan harremanen hiztegia = Diccionario de relaciones laborales*. Iruñea; Bilbo: Nafarroako Gobernua; Euskadiko Lan Harremanen Kontseilua. 1999.
- *Zuzenbidea. Hiztegia*. Donostia: Elkar. 1985. 2 libk.
- WRIGHT, S.E.; BUDIN, G., Comp. *Handbook of terminology management*. Vol. 1. *Basic aspects of terminology management*. Amsterdam; Philadelphia: John Benjamins, 1997.
- *Handbook of terminology management*. Vol. 2. *Application-Oriented Terminology Management*. Amsterdam; Philadelphia: John Benjamins. 1997.